

**HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA**  
**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua**  
Ikasturtea: 2021-2022

**EUSKAL PILOTAN BIGARREN HEZKUNTZAKO  
IKASLEEK DUTEN EZAGUTZA, INPLIKAZIOA ETA  
INTERESA**

**EGILEA:** Ramirez Morato, Iker

**ZUZENDARIA:** Llodio Uribeetxebarria, Iñaki

## Laburpena:

Hurrengo lana Gasteizko Hezkuntza eta Kirol fakultatean egindako gradu-amaierako lana da. Lan honetan bigarren hezkuntzako ikasleak esku pilotaren inguruan duten ezagutza, interesa eta aplikazioa aztertu da. Horretarako, 2. mailako 79 ikasle aztertu dira, hau da, 13-14 urte bitarteko umeak, 4. mailako ikasleak kontrol talde moduan hartuz. Horrela, parte hartzaile hauetatik abiatuz, Esku Pilotaren unitate didaktiko batek DBH 2. mailako ikasleengan duen eragina ere aztertu da, 2. eta 4. mailako ikasleei galdetegi bat pasatuz unitate didaktikoa egin aurretik eta ondoren, eta haien emaitzak aztertuz taula gurutzatuen eta Wilconson taularen bitartez.

Unitate didaktikoaren aurretik, euskal pilotarien ezagutzan izan ezik, zeinetan 2. mailakoena handiagoa zen 4. mailakoenarekin alderatuz, 2. eta 4. mailakoen ezagutza eta interesa antzekoa zen. UD-aren eraginez 2. mailakoek esku pilotaren inguruko ezagutza eta interesa asko handitu zutela ikusi da, izan ere, 6. galderan izan ezik (esku pilota praktikatzen duten edo ez) beste guztietan aldaketa nabarmenak ikusi ziren UD ondoren egindako galdetegiaren emaitzetan UD aurretik egindakoarekin konparatuz. Horrez gain, 4. mailakoen erantzunek ez zituzten orokorrean aldaketa nabarmenik izan.

Datu hauek adierazten digute UD-ak eragin positiboa izan zuela 2. mailako ikasleengan (interbentzio taldean). Argi utziz, behar bezalako unitate didaktiko bat aurrera eramanez ikasleen motibazioa areagotzen dela eta gai horrekiko interesa, ezagutza eta inplikazioa honekin bat datorrenez, hauen gehikuntza ematen da. Unitate didaktikoaren garrantzia azpimarratuz bigarren hezkuntzan eta konkretuki gorputz hezkuntzaren arloan.

**Hitz gakoak:** Unitate Didaktikoa, Esku Pilota, Gorputz Hezkuntza, Interesa.

## Resumen:

El siguiente trabajo es un trabajo de fin de grado llevado a cabo en la Facultad de Educación y Deporte de Vitoria-Gasteiz. En este trabajo se ha analizado el conocimiento, interés e implicación que tienen los alumnos/as de secundaria de la pelota mano. Para ello, se han analizado a 79 alumnos/as de 2º de la ESO, es decir, estudiantes de 13 a 14 años, junto con un grupo de control de 4º de la ESO. Así, a partir de estos participantes, se analizará también el impacto que tiene una unidad didáctica de Pelota Mano en el alumnado de 2º de la ESO, pasando un cuestionario al

alumnado de segundo y cuarto curso antes y después de realizar la unidad didáctica y analizando sus resultados a través de tablas cruzadas y la prueba de Wilconson.

Antes de la unidad didáctica, salvo el conocimiento de los pelotaris vascos, en los que el de 2º era mayor que el de 4º, el conocimiento e interés de los de 2º y 4º era similar. La UD ha constatado que los de 2º aumentaron considerablemente el conocimiento e interés por la pelota a mano, salvo en la pregunta 6, en la que se pregunta si practican o no pelota a mano, se observaron cambios significativos en los resultados de la UD realizada con anterioridad. Además, las respuestas de los de 4º no experimentaron en general cambios significativos.

Dejar claro que con el desarrollo de una unidad didáctica adecuada incrementa la motivación del alumnado y que el interés, conocimiento e implicación en esta materia coincide con el incremento de la misma. Se incide en la importancia de la unidad didáctica en la educación secundaria y en concreto en la educación física.

**Palabras clave:** Unidad Didáctica, Pelota Mano, Educación Física, Interés.

**Abstract:**

The next work is the end of degree work done at the faculty of education and sport of Vitoria-Gasteiz. This paper has analyzed the knowledge, interest and involvement of secondary students in the Basque ballusín gone's hand (basque ball). For this purpose, 79 students from 2 ESO, that is, 13 to 14 years old, along with a control group of 4 ESO, were analyzed. Thus, from these participants, we also analyzed the impact that a teaching unit of Basque Ball had on the students of the second grade of the ESO, passing a questionnaire to students of second and fourth before and after undertaking the teaching unit and analyzing its results through cross tables and the Wilconson test.

Before the teaching unit, except for the knowledge of the Basque players, where the second was greater than the fourth, the knowledge and interest of the second and fourth were similar. The HH found that those of the second increased considerably the knowledge and interest in the ball by hand, except in question 6, in which they perform ball by hand or not, significant changes were observed in the results of the HH performed previously. In addition, the responses of the 4th did not generally experience significant changes.

It is clear that the development of an adequate teaching unit increases the motivation of students and that the interest, knowledge and involvement in this subject

coincides with the increase in it, impacting on the importance of the teaching unit in secondary education and specifically in physical education.

**Keywords:** Teaching Unit, Basque Ball, Physical Education, Interest.

## **AURKIBIDEA:**

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>6</b>
<b>2. MARKO TEORIKOA.....</b>	<b>7</b>
2.1. Euskal pilota eta konkretuki esku pilotaren ezaugarriak.....	7
2.2. Esku pilota hastapenean jolas moduan.....	9
2.3. Euskal pilota eta kultura.....	11
<b>3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK.....</b>	<b>12</b>
3.1. Helburuak.....	12
3.2. Hipotesiak.....	13
<b>4. METODOLOGIA.....</b>	<b>14</b>
4.1. Parte hartzaileak.....	16
4.2. Ikerketa diseinua.....	17
4.3. Prozedura eta tresnak.....	17
4.4. Analisi estatistikoa.....	18
<b>5. UNITATE DIDAKTIKOA.....</b>	<b>19</b>
<b>6. EMAITZAK.....</b>	<b>36</b>
<b>7. EZTABAIDA.....</b>	<b>41</b>
<b>8. ONDORIOAK.....</b>	<b>43</b>
<b>9. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>44</b>
<b>10. ERANSKINAK.....</b>	<b>47</b>

## 1. SARRERA:

Euskal pilota euskal kulturaren parte da eta euskaldunen gehiengoak uste du umeez eta gazteek kirol hau txikitatik ikusten dutela edota gogoko dutela euskaldun izateagatik, baina... Nolakoa izango da gaur egungo euskal umeez euskal pilotarekiko eta konkretuki esku pilotarekiko duten jarrera? Interesa izango dute? Kirol hau praktikatu dute?

Euskal Herrian proiektu pedagogikoa osatzeko asmoz urrats garrantzitsuak ematen ari dira. Herrietan dauden eragile pedagogiko gehienek Euskal kulturaz gazteek izan behar duten oinarritzko ezagutza finkatzea dute helburu. Izan ere, herri batek nazioa izateko hizkuntza eta kultura izan behar ditu, eta belaunaldiz belaunaldi herriaren hizkuntza eta kultura transmititzen ez badira nazioaren desagertzearekin batera herria itzali egiten da. Euskal Kirolak Euskal Herriaren testuinguruan egituratuz gero, bere esparrutik lagundu dezake euskal kultura indartzen.

Gratu amaierako lan honekin, esku pilota eta honen balioak ezagutaraztearen ekimena azalarazi nahi ditut eta horretarako proposamen didaktiko bat diseinatu dut. Robinson-ekin (2015) bat eginez, uste dut etorkizuneko erronkei erantzuna eman ahal izateko hezkuntza baliabiderik garrantzitsuenetako bat dela, kasu honetan esku pilota bultzatuz eta maila txiki batean euskal kultura aurrera eramanez euskal kirol bat lantzerako orduan.

Horretarako, galdetegi bi pasatuko zaizkie ikasleei. Galdetegi batean, haien esku pilotaren inguruko ezagutza eta interesa aztertuko da, galdetegi hau Unitate didaktikoa (UD) egin aurretik eta ondoren pasatuz eta haien arteko emaitzak konparatuz. Emaitza hauek UD-aren eraginez izan diren edo ez ikusteko, kontrol talde bat hartuko da, hauei ere galdetegi berdina pasatuz baina UD-a jaso gabe. Interbentzio taldea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH-ko) 2. mailako ikasleak izango dira eta kontrol taldea DBH 4. mailako ikasleak. Datu hauek izan duten eragina ikusteko, taula gurutzatuak eta Wilconson froga erabiliko da. Horrez gain, bigarren galdetegiari dagokionez, UD-a ikasleei zer iruditu zaien ikusteko izangoda, haien iritzia edukitzeko eta honen planteamendua egokia izan den edo ez ikusteko, era honetan lortutako emaitzak positiboak edo negatiboak izatekotan arrazoi bat edukitzeko eta ikasleen nahiak kontuan hartzeko.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1 EUSKAL PILOTA ETA KONKRETUKI ESKU PILOTAREN EZAUGARRIAK.

Gaur egun, euskal pilota Espainia estatuko oso leku zehatzetara mugatzen da. Leku horietako bi, non joko errotuago baitago, Euskadi – Nafarroa eta Valentzia dira, beraz, hain mugatuta egonda printzipioz gaur egungo gazteek kirol hauen berri jakin beharko lukete. Lehenengo kasuan, euskal pilota kirol bihurtutako jokoaren adibide garbia da (Olaso, 1993) eta zuzenean eta luzaroan egindako euskal joko modalitateak aldaera ugari ekarri ditu. Gehienak zeharka jolasten dira, hau da, hormaren kontra eta horietako asko erremintarekin, Gonzálezen arabera (2005), XIX. mendetik aurrera hasi zen euskal joko eraldatzen gaur egun euskal pilota deitzen diogun horretan.

Euskal pilotako joko guztien artean gehienbat esku pilotan zentratuko da gradu amaierako lan hau, gainerako modalitateei aipamen txikiak eginez, beraz, joko hauen inguruan informazioa eskuragarri izateko, joko horiek hainbat autorek aztertu dituztela esan beharra dago bereizita, besteak beste, errebotea eta/edo eskularrua/laxoa (Arraztoa, 2004; Beharzana eta Arratibel, 1998) edo pala, zesta-punta, erremonte eta/edo esku-pilotako zeharkako modalitateak (Albisu, 2007). Era berean, joko-arauak Euskadiko Euskal Pilota Federazioak argitaratutako araudian daude deskribatuta.

Euskal pilotaren hastapenean zentratzen garenean eta hau ume eta gazteekin aurrera eramaten dugun momentuan, garrantzitsua da aipatzea hainbat fase edo alditan banatzen direla eta kontuan hartu behar direla unitate didaktiko bat aurrera eramaterako orduan batez ere gazteen maila kontuan hartuz eta zein alditan dauden identifikatuz, izan ere, ikasleak ez dauden aldi bateko jolasak edo jarduerak planteatuz gero (adibidez 4. aldiko ariketak planteatzea ikasleak 1 edo 2. aldian egonda edo alderantziz), jarduerak aspergarriak, lasaiegiak, edota gogorregiak iruditu ahal zaizkie eta haien interesa esku pilotarekiko guztiz galtzea posible izango litzateke. Faseen inguruan hitz egiten dugunean, gazte edo ume batek igarotzen dituen aldiei egiten diogu erreferentzia. Ikasle bakoitzaren garapena ezberdina dela kontuan hartuta beti ere, lau fase orokor zehaztu izan dira euskal pilotaren ikaskuntzan: (1) ni eta pilota; (2) ni, pilota eta espazio-denbora; (3) ni, pilota, espazio denbora eta aurkaria; eta azkenik, (4) ni, pilota, espazio denbora, aurkariak eta kidea/k (Arabako euskal pilota elkarte, 2019-2020).

Ondorengo diagramak fase bakoitzerako egokiak diren joko eta ariketak adierazten ditu.



1. diagrama. Euskal pilotaren ikaskuntzaren faseak. EP: Euskal Pilota.  
e.h.:Espazio helburua (Arabako euskal pilota elkartea, 2019-2020).

Aldi hauek ez daukate zertan zerikusia eduki gazteen adinarekin, izan ere, adin bereko bi kidek ezaugarri eta gaitasun desberdinak eduki ditzakete eta horiek errespetatu behar dira ikaskuntza prozesu honetan eta kirolaren hastapen guztian zehar, beraz, taldekatzeak egiteko momentuan ikasle bakoitza bere aldi dagoen beste ikasleekin jarriko da maila bera edukitzeko eta jarduerak entretenigarriak izateko.

Orduan, kontuan hartuta ikasle bakoitza berari dagokion aldi kokatua egongo dela, esan daiteke bide ezberdinak edukiko dituztela ikaskuntza berdina edukitzeko, bakoitzak bere prozesu propioa jarraituz eta helburu eraginkor eta aberats bat jarraituz. Beraz, ezin dugu espero ikasle guztiak denbora berean fase batetik bestera igarotzea, baina helburua ez dagoenez ikasle bakoitzaren mailan zentratuta, bakoitzari dagoen aldiko ariketak proposatzea eta ahal den neurrian laguntzea izango da helburua.

Esku pilotaren ezaugarriekin jarraituz, ikasleek jakin beharko dute esku pilota euskal pilotaren espezialitate bat dela, hainbat modalitate daudela eta eremu ezberdinetan jolasten dela: pilotalekuan, trinketean eta plaza librean. Ez da tresnarik erabiltzen esku pilotan jolasteko, larruzko pilota bati eskuarekin kolpea emanaz jolasten da eta eskua esparatrapu eta oihalez bakarrik babesten da. Binaka edo



banaka jokatzeko aukera dago, bikoteko jokalaririk batek eskuz jo behar du pilota frontisean sartuz, eta, ondoren, kantuan mugatuta dagoen eremuan eman behar du botea. Pilota modalitate hau guztien artean gehien zabaldu dena da, eta kirol profesional moduan goreneko maila lortu du Espainian eta Frantzia.

Ikasleei azaldu behar zaie, normalean, bi edo lau pertsonak jolasten dutela (bat baten aurka edo bi biren aurka). Lau pertsona ari badira jolasten, bi talde egiten dira, urdinak eta gorriak izan ohi direnak; bere taldean pertsona zaharrena duena izango da koloratuen (gorrien) taldea. Jokalariak frontoian banaturik daude, bi jokalaririk aurrean (aurrelariak) eta beste bi atzean (atzelariak), talde bakoitzeko bat leku bakoitzean.

Horrez gain, hastapenean ez da partida serioziki jolastuko, izan ere, aipatuko dugun bezala jolasean zentratuko gara, baina ikasleek hainbat gauza jakin beharko dituzte partida bat jokatzeko momentuan: alde batetik, garrantzitsua da jakitea partida aurrera joan ahala jokalariek nahi beste ukitu dezaketela pilota, betiere aurkariaren jarraian kolpatzen baldin bada eta haien artean posizio aldaketak egin daitezkeela (bikoteko partidetan); bestetik, partida tanto kopuru batera heltzen denean amaitzen dela garrantzitsua da, baina tanto kopuru hau maila eta adinaren arabera aldatzen joango da. Normalean 22 tantotara izaten da baina gazteetan (12 urtetik behera) 18ra jolastea izango da ohikoena.

## **2.2 ESKU PILOTA HASTAPENEAN JOLAS MODUAN.**

Euskal Curriculumak irakaskuntza eta aisialdia kontuan hartu beharko lituzke, nahiz eta, logikoa den bezala, bakoitzari curriculumak zehaztu beharko litzaiokeen. Curriculumak bi eratan planteatu daitezke. Batzuetan Curriculumak irekia dela esaten da eta, besteetan, itxia. Curriculumak irekia eta itxiaren hautuak proiektu pedagogikoan finkatzen diren helburuei, edukiei eta estrategia ezberdinei erantzuten die. Kasu honetan Curriculumak irekia izango da, ikasleen interesa eta haien jarrera positiboa biltzen delako, eta ez delako curriculumeko helburu eta eduki zehaztutako zentratuta egongo.

Jokabide motorra ezin da soilik mugimenduaren ikuspegitik aztertu, horretarako behar beharrezkoa da mugimendua egiteko dagoen intentzioa, motibazioa aztertzea. Motibazioak eta intentzioak gihar tonua baldintzatzen dute eta horren ondorioz egoera fisiologikoa egokitu egiten da (Egibar, 2006). Unitate didaktiko honek emozioak bideratzen lagundu behar du. Gazteak izaten dituzten aldaketa fisiologikoak behin jarduera motorraren bitartez identifikatu eta gero jarduera motorraren bitartez gazteek pairatzen dituzten aldaketa fisiologikoak identifikatu ondoren, egoera hau nola

kontrolatu eta bakoitza bere buruaren jabe izateko jarduerak planteatu beharko lirateke (Egibar,2006). Esku pilotaren esku-hartze honen bitartez emozioak biziaraztea topatzen da, emozioek sortzen duten aldaketa fisiologikoez ohartu eta bakoitzaren barnean eragin dezakeen aldaketaren jabe izateko tresna ezberdinak eskaini behar zaizkie ikasleei, jardueretan dibertitzeko denbora guztian zehar eta zaletasunez gozatzeko.

Gorputz hezkuntzaren (GH) irakasgaiak, nahiz eta irakasgai normal bat izan, gainerakoek baino gehiago barne hartzen du aisialdia, beti ere ikasleak kontrolpean izanik eta hauek aztoratu gabe. Ume bati, aisialdian, inoiz ezin zaio joko helburu moduan planteatu, izan ere, hau egiten dugunean teknikan eta biomekanikan oinarritzen gara eta helburu bakarra irabaztea izango litzateke, aisialdia alde batera utziz. Kasu honetan, errendimenduan oinarritzen den kirol batean zentratzen gara eta honek bere arriskuak izan ditzake, ikasleen gogoak eta entretenigarritasuna alde batera uzteko arriskua baitago. Horregatik, garrantzitsua da unitate didaktikoetan zehar planteatzen diren ariketa eta jarduerak jolas moduan planteatzea, umeek ondo pasatzeko eta aurrera eramango den unitate didaktikoan zehar jardueraz gozatzeko (Carrillo López, 2015).

Honekin jarraituz, GH-n nahiz eta kirola egin, ez du esan nahi derrigorrez ludikoa denik. Gaur egungo kirol munduan ikus daitekeen giroa eta mentalitatea ikusita, airean dagoen egitura honek oso aukera gutxi ematen dizkio kirolari ludikotasuna bilatzeko. Zikloak, epeak, entrenamenduak, planifikazioak, lehiaketa, etab.-eko sisteman ezin da aldaketa askorik egin, beraz, ludikotasunera bultzatuta dagoen unitate didaktiko batean kontu handia eduki behar da honetan ez jausteko, eta batez ere gorputz hezkuntzako edozein saiotan zehar ez da perspektiba honetan jausi behar. Gorputz hezkuntzak plazerra sentiarazi behar dio ikasleei jolas eta jokoen bitartez, eta ikuspegi hau norbere bizitzan integratuz egunero zoriontsu izateko (Delgado et al., 2014).

lido beretik, gorputz hezkuntzaren praxia entrenamenduan oinarritzen baldin bada ez da gorputz hezkuntza izango, orduan ikasleek aurretik aipatutako ludikotasuna alde batera utziko dute. Hezitzailea izan behar du derrigorrez. Hedabideetan aipatzen digutena baino gehiago dela erakutsi behar du. Hezkidetzaren baloreak bultzatu behar dira, generoa alde batera utziz, neska zein mutila izanik guztiekin ondo pasatu ahal dela ulertu behar da, kidea eta aurkaria errespetuz tratatu behar dira eta horretarako esku pilota kirola adibide ezin hobea da balore hauek aurrera eramateko eta lantzeko.

Aipatutako gorputz hezkuntza sortuz saioetan zehar, ikasleei zorientasuna plazaratuko zaie eta eguneroko bizitzan plazaratuko dute, jarduera guztietan zehar disfrutatuz.

“Euskal soin hezkuntzako curriculumak kirol jokoak, jolasa eta jolas-jokoan errotuta egon behar da; honela euskal gizarteak, tradizioa abiapuntua izanik, gaur egun nahi dituen giza ereduak bultzatu ditzake” (Etxebeste, 2004).

Etxebesteren aipamen honekin jarraituz, eskolaz kanpoko kirolak posible du hiru jarduera mota horiek ere erabiltzea: eskola bakoitzak hautatu beharko luke garatu nahiko lukeen hiritarra eta zer nolako funtzioa beteko luketen gorputz jarduerak. Egun, Aldundiek kirol jokoak sustatu dute, lagun koadrilak elkarren kontra lehian ipiniz. Honela, legeak lagun taldeak hamalau urte arte elkarrekin bermatu nahi ditu, haurrak giza garapen egokia izan dezaten (Etxebeste, 2006).

### 2.3 EUSKAL PILOTA ETA KULTURA.

Lan honen bitartez ikasleek esku pilota bere osotasunean eta kulturarekiko inpaktua ulertzea nahi da ere, era honetan interes maila areagotuz eta haien interesa piztuz. Egia esan Euskal Herrian jolas eta jokoetan dagoen sare sinbolikoaren azterketa hasi besterik ez da egin, eta garrantzitsua litzateke euskal kulturarekin lotura zuzena duten jolas eta jokoak sare sinbolikoaren arabera ez bakarrik aztertzea baizik eta baita sailkatzea ere. Sare sinbolikoak jolas eta joko guztiek duten barne logikari erantzuten dio. Horregatik diogu jolas eta jokoak bat datozela eta armonian daudela komunitate baten kulturarekin (Parlebas, 2001).

Jolas eta jokoak ludikotasunaren dimentsiotik hartu behar dira, hau da, zentzu ludikoa eman behar zaie eta aisialdira bideratutako ikuspuntua eduki behar dute, eta horretan sistema praxiologikoak baliatuz, gazteak murgilduta dauden kultura ulertzeko eta bizitzeko jolas eta jokoek tresnatzat hartuta lagundu behar diote (Lagardera eta Lavega, 2003). Une bakoitza gozatzeko etengabe ludikoa izan behar da. Egoeren aurrean gure jarrerak egoera horretan dugun pertzepzioa finkatzen du eta zorientasua izateko ezinbestekoa da ludikotasuna norbere bizitzan integratuta izatea (Csikszentmihaly, 2004).

Pilota-mundua oso mundu txikia da. Pilotariak askotan egoten dira elkarrekin, aldageletan elkarrekin aldatzen dira, ordu asko ematen dituzte batera eta asko lagunak dira. Errespetu-kontua da, oso gutxitan ikusten dira pilotariak haserre edo protestaka kantxa barruan. Azken finean denak ezagutzen dira, denak lagunak dira, eta hau kirol bat da, kirol guztietan bezala errespetua presente egon beharko litzatekeen aldia.

Pilota errespetu handiko kirola da, hori dela eta, errespetuzko balore hauek unitate didaktiko baten bitartez gazteei transmititzea interesgarria izango litzateke, eta euskal pilotak euskal kulturaren duen garrantzia hezkuntzara bideratzea metodo egokia iruditzen zait haien interesa esku pilotarekiko eta euskal kulturarekiko handitzeko.

Euskal nortasuna sinbolikoki erakusteko gehien erabiltzen den irudietako bat pilota-jokoa da, eta, Angel Martínez de Salazarrek zuzen deskribatu zuenez, “euskal eta nafar herrixketan eliza bezain ezinbestekoa da”. Euskal pilota ez da joko huts bat bakarrik, zerbait gehiago da. Historiarekin, folkloreakin, kulturarekin, herriko festarekin eta jendearen izaerarekin lotzen da. Pilota da “euskal joko nagusia” (Pío Baroja, 1940). Gaur egun, kirol profesionalizatua da, enpresa-antolamenduaz eta klub eta federazioek koordinatutako afizionatuen kolektiboaz hornitua, eta horren berri ematen dute masa-komunikabideek.

### **3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK**

#### **3.1 HELBURUAK**

Esku pilotaren munduak kirolarekiko ematen dituen balioen bitartez euskal kulturaren eta aisialdi kirolaren ikuspegi zehatz bat eskaintzen du, gazteari edo hau praktikatzen duenari jarrerak eta pautak zehatz batzuk helaraziz. Hauek, askotan, modu esplizitu batean ematen dira eta beste batzuetan, ordea, modu inplizituan, baina ukaezina da gazteengan duen eragina.

#### **HELBURU NAGUSIA:**

- DBH 2. mailako ikasleek euskal pilotan eta zehazki esku pilotan duten ezagutza eta interesa aztertzea.

#### **AZPI HELBURUAK:**

- Gaur egungo esku pilotaren errealitatea ikustea gazteengan eta hau aztertzea kritika bat eginez gaur egungo egoerari.
- Esku pilotaren UD bat aurrera eramateak esku pilotaren eta euskal pilotaren inguruko ezagutzan eta interesean eraginik duen aztertzea.
- Euskal pilotak eta konkretuki esku pilotak euskal kulturaren duen inpaktua gazteei ezagutaraztea unitate didaktikoaren bitartez.
- Generoaren arabera esku pilota gogoko duten eta praktikatzen duten edo ez aztertzea

### 3.2 HIPOTESIAK:

Gradu amaierako lan honetan egingo dudan lanaren hipotesiarekin hasteko, esan behar da DBH-ko ikasleak euskal pilotarekiko duten interesa aztertuko dela batez ere esku pilotan zentratuz. Hau aztertzeko oinarrizko bigarren hezkuntzako 2. mailako interes eta gogoetatik abiatuko naiz, gela ezberdinetan zehar galdetegi bat pasatuz eta haien arteko ezberdintasunak ikusiz eta ondorengoa izango dut kontuan: ikasleen interesa esku pilotarekiko, esku pilotara gogoko duten jolastea edo honetan lehiatzea, telebistan ikusten duten partiduren bat, generoaren arabera zenbat gizonak eta emakumeak duten gogoko esku pilota, hau da, gogoko dutenen artean zenbat gizon eta emakume dauden edota praktikatzen duten kirol hau eta amaitzeko haien jakintza esku pilotaren inguruan kirol moduan edo euskal kultura abiapuntutzat hartuz.

Kontuan hartuz galdetegia eta ikerketa Igorreko Arratia B.H.I eskolan aurrera eramanez eta kontuan izanda Arratia eskolak herrian esku pilota bultzatzen duela eta gazteen ohiko kirol moduan hartzen dela posible izango da gazteek duten errealitatea aldatzea, izan ere herri euskalduna delako eta bertako biztanle gehienak euskal kultura barneratuta dutelako eta esku pilota barne sartu ahal delako. Hala ere, gaurko gizartea kontuan hartuta eta teknologiak gazteengan izan duen inpaktua ikusita, uste dut gaur egungo gazte gehienek ez dutela izango esku pilotarekiko interesa eta jakintza gutxi izango dutela gai honen inguruan. Faktore horiek sakonago aztertuz, batez ere esku pilota praktikatu edo gogoko dutenen artean uste dut mutil gehiago egongo direla neskek baino, izan ere, gizarteak mutilari garrantzi gehiago eman dio historia guztian zehar eta gainera kirolaren inguruan ukaezina da gaur egun dagoen alde gizon eta emakumeen inguruan, nahiz eta pertsonalki ados ez egoneta gizarteak hau aldatzeko saiakerak egin.

Aztertuko dudan beste faktore bat unitate didaktikoak gazteengan duen inpaktua izango da eta landuko den gairekiko (kasu honetan esku pilota) interesa eta gogoak pizten dituen ikasleengan. UD-ak uste dut inpaktu ona izango duela ikasleengan eta interesa piztuko diela esku pilotaren inguruan, izan ere jolas eta ariketa aproposak eginez ikasleen motibazioa topatuz haien grina piztu daiteke. Izan ere, UD-en plangintza eta garapena elementu ezin hobea da (Hernandez, 2014) ikuspegi konstruktibistan oinarritutako klase-multzo bat prestatzeko, zientziaren ikaskuntzari eragiten dion edukiaren ezagutza pedagogikoaren esparruan.

Hipotesiekin amaitzeko, esku pilotaren unitate didaktiko hau aurrera eramaterako orduan euskal kulturarekiko inpaktua behar bezala ulertuko dutela uste

dut. Izan ere irakaslearen lana izango da hauek kontzientziatzea eta saioetan zehar kirol honen garrantzia euskaldunontzat azaltzea. Izan ere, Euskal nortasuna sinbolikoki erakusteko gehien erabiltzen den irudietako bat pilota-jokoa da.

Borobilduz, hauek dira planteatzen ditudan hipotesiak:

- Hasieran, UD aurrera eraman aurretik, ikasleen artean oso pertsona gutxi egongo dira esku pilota jarraitzen, praktikatzen edota gustuko dutenak.
- Esku pilotaren interesei dagokienez, uste dut aurrera eramango diren saioak interesgarriak eta ondo planteatuta daudela, eta beraz, haien interesa piztea lortuko dela.
- Aurreko hipotesiarekin bat etorriz, UD-aren papera egokia delakoan nago eta helburuekin bat etorriko dela.
- Azken hipotesiarekin amaitzeko, ikasleek esku pilotak euskal kulturaren duen mailaz eta handitasunaz ohartuko dira.
- Generoaren arabera ezberdintasun asko egongo dira, izan ere gaur egun oraindik ezberdintasun asko ikusten dira kirolean neska eta mutilen artean. Mutilen gehiago gustatuko zaie eta gehiago praktikatu dute esku pilota neskak baino.

#### 4. METODOLOGIA:

Lan honen helburua Igorreko (Arratia B.H.I) eskolako ikasleak esku pilotaren ezagutza eta honen inguruko interesa aztertze aizan zen, ondoren esku pilota sustatzen zuen UD bat proposatzeko. Lehenik eta behin, ikasleen gabeziak eta interesa aztertzeko galdetegi bat diseinatu zen unitate didaktikoa aurrera eraman aurretik eta beste bat hau landu ondoren: Galdetegia DBH 2 eta 4. mailakoekin egin zuten, nahiz eta unitate didaktikoa 2. mailakoekin soilik aurrera eraman zen (2. Mailako ikasleak interbentzio taldea eta 4. mailako ikasleak kontrol taldea izanik). Bi taldeen emaitzak konparatuz UD-ak izan zuen efektua aztertu zen. Galdetegia, galderen bidez datuak biltzeko teknikatzat hartzen da, aldeztu aurretik eraikitako ikerketa problematika baten inguruan datuak jasotzeko helburua duena (López eta Fachelli, 2015).

Ikerketak egiteko dauden metodologiaren artean lan honetarako ikerketa mistoa egitea erabaki zen hasiera batean, izan ere Johnsonek eta Onwuegbuziek (2004) zioten bezala, ikerketa mistoetan ikertzaileak ikerketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren teknikak, metodoak, kontzeptuak, hizkuntzak edo ikuspegiak nahasten dituzte ikerketa bakar batean. Izan ere, ikerketa askok erakutsi dute ikerketa kuantitatiboa eta ikerketa kualitatiboa osagarriak direla (Alcalde, 2006; Amorrortu, 2012). Ikerketa

honetako helburuei eta hipotesiei hobeto erantzuten dio bi metodologiak (kuantitatiboa eta kualitatiboa) gurutzatzeak. Johnek eta Creswellek (2000) baieztatu zuten, ikerketa mistoek, metodologia kuantitatiboak eta kualitatiboak jasotzen dituzenez, ikergaiaren ulermen handiagoa eta zehatzagoa ahalbidertzen dute. Baina azkenean ikerketa kuantitatiboa egitea soilik aukeratu da, emaitzak adierazgarriagoak eta bisualagoak izateko eta behar bezala plasmatu ahal izateko

Lan hau, kuantitatiboa da egoeraren deskripziorako informazio-datu zehatzak izateko galdetegiaren bitartez datuak bildu zirelako eta datu hauen azterketa eginez, ezarritako hipotesiak baieztatzen edo ezeztatzen ziren zehaztu ahal izan zelako. Beraz, zenbaketa eta estatistikaren erabilerari esker, laginaren patrioiak antzeman ahal dira hipotesiak baieztatuz edo ezeztatuz. UD-an parte hartu zuten ikasleen erantzunak hartuz, haien interesa pilotarekiko ezagutuko da. Baita ere kirol hau gogoko zuten edo ez, eta generoaren arabera esku pilotak ze inpaktu zuen ikasleengan. Francés, Alaminos, Penalva eta Santacreu-k (2014) ondo azaltzen duten bezala, ikerketa kuantitatibo baten bidez kuantifikatu egin nahi dugu, hau da, gizarte errealtatearen datu kuantitatiboak jasotzea. Beraz, jarraian deskribatuko diren galdetegiaren bitartez datu zehatzak eskuratzea espero zen, horretarako galdera itxi eta irekiak planteatuz

#### *Ikerketa burutzeko emandako pausuak*

Lehenik, gaur egungo euskal gazteetan esku pilotaren interesa detektatzeko eta honen inguruko gauza berriak jakiteko grina ikusteko ikasleen lagina aukeratu zen. Gero, ikasle horien interesa aztertzeke eta datuak biltzeko Euskal pilotan oinarrituta zegoen analisirako fitxa sortu zen.

Ondoren, lagina osatzen zuten ikasle guztiei galdetegi bat pasatu zitzaientz, sortutako fitxa horretan jaso nahi izan genituen erantzunak betetzeko. Azkenik, galdetegia egin ahala fitxa bete zen eta koaderno batean jokabide interesgarrien inguruan apunteak hartu ziren.

Esan beharra dago, ez dela galdetegiari soilik kasu egin behar, izan ere, kontu handia izan behar da ikasleen jarreraren unitate didaktikoa aurrera eramaten den bitartean, haien jarrera eta galdetegian emandako erantzunak bat dauden ikusteko. Gainera haien keinuak ere kontuan hartuko dira jarreraren nondik norakoak ikusteko eta analisi kualitatiboa egiteko orduan.

Galdetegia betetzea borondatezkoa izan da, izan ere ezin dira ikasleak behartu hau betetzera. Horrez gain, ikastetxeari, tutoreari, Gorputz Hezkuntzako (GH-ko) irakasleari, baimena eskatu zitzaientz azterketa egiteko. Ikerketa egiteko Helsinkiko

adierazpenak kontuan hartu dira eta anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen dira.

#### 4.1 PARTE HARTZAILEAK

Badakigu, esku pilotaren unibertsoa oso zabala eta anitza dela. Gainera, modu ezberdinetan sailkatu daiteke kirol hau (adinaren arabera, generoaren arabera, lehiaketa edo aisialdi eran, etab), horrexegatik argi izan behar da zer ikertu nahi den, zertarako eta irizpide batzuen bitartez lagin adierazgarri bat finkatu.

Lehenik eta behin, aurretiaz azaldutako lan honetako helburuak eta hipotesiak oinarri hartuta, eta lana eta ikerketa errazteko eta aberasteko asmoz, talde experimental gisa 2. mailako ikasleak, 13-14 urte bitarteko ikasleak hain zuzen, aztertu ziren nahiz eta galdetegi biak (UD baino lehenagokoa eta beranduagokoa) 4. mailakoei ere pasa zitzaizen emaitzak konparatzeko. Hau da, kontrol taldea 4. mailako ikasleek osatu zuten.

Aipatu bezala, lan hau nire masterreko Arratia B.H.I zentroan 2. mailako eta 4. mailako ikasleetan burutuko da. Arratia BHI zentroa Igorren dago, 5.000 biztanle baino gutxiagoko herri txiki batean, Arratia ibarrean, Bizkaian. Egia esan, eskualdeko institutua da, eta komunitatea osatzen duten herrietatik ikasleak hartzean dituzten Arratia ibarretik: Bedia, Lemoa, Dima, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza, Zeanuri eta Zeberiotik.

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen sare publikoko zentroa da Arratia BHI, eta D ereduaren ematen duen mota guztietan, hau da, mota guztiak euskara hutsean daude. Guztira 470 ikasle eta 60 irakasle inguru dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (lau maila) eta lau lerro ematen dira maila bakoitzean, Batxilergoa (Giza eta Gizarte Zientziak ereduaren eta Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoan). Batxilergoko lehenengo mailan hiru talde daude, bata zientzietakoa, bestea letretakoa eta bestea mistoa, eta bigarren mailan bi talde daude, bata letrena eta bestea zientziena.

Arratiako bailara ezaguna da funtsean landa-eremuko delako. Euskal Herriko baserri tipikoak bertako geografia osoan daude sakabanatuta, eta hiri horiek ez dira oso jendetsuak, ez baitute gainditzen bailara osoko populazio osoa, 14.000 biztanle bezala, zentroaren aurkezpenean aipatu ziren. Abeltzaintzako eta nekazaritzako tradizioek aktibo jarraitzen duten arren, biztanle gehienek inguruko industria txiki eta ertainetan lan egiten dute.



Maila hauetako ikasleek adin paregabea dute etorkizunera begira UD-ak izan dezakeen inpaktuagatik, hau da, lortu nahi diren helburuak lortzen baldin badira, agian, esku pilotan jolasten hasten dira oraindik gazte izanda eta hobetzeko asmoarekin egiten dute. Ikasle kopuruari dagokionez, esan beharra dago ikasle askok parte hartu zutela eta lagina handia zela. Guztira 4 talde zeuden 2. maila guztian, 79 ikasle egonik (35 mutil eta 44 neska). Horrez gain, 4. mailan 3 talde zeuden, guztira 60 ikasleekin (28 neska eta 32 mutil). UD burutzerako orduan, ikasle batek ezin izan zuen parte hartu, izan ere kristalezko hezurak zituen eta espezialistek debekatu egin zioten gorputz hezkuntza egitea, beraz, galdetegia pasatzeko orduan, lehendabiziko galdetegia soilik hartuko da kontuan, hau da, UD egin baino arinagokoa, era honetan bere gogoak kontuan hartuz baina UD-ak beregan izan duen inpaktua kontuan hartu gabe, ez duelako parte hartuko gainontzeko ikasleekin. Ikasle honetaz aparte beste guztiek zuzenean parte hartu zuten.

Ikasleei adierazi zaie ikerketaren helburuak eta metodologia (galdetegia pasako zaiela) eta ikerketan parte hartzearen onuren eta kalteen berri eman zaie. Nahiz eta egon daitezkeen arrisku eta eragozpenak minimoak izan hauen berri eman zaie ( haien denbora galdetegia betetzeko, unitate didaktikoa haurrera eramateko, etab.), gainera anonimotasuna bermatuko da eta ez da pertsonen etika, emoziorik edo egoera pertsonalik kaltetzen.

#### **4.2 IKERKETA DISEINUA**

Aurrez aipatutako hipotesiak betetzen ziren edo ez aztertzeko, alde batetik, konparazio ikerketa bat egin zen pilotaren praktika, gustu eta ezagutzaren inguruko galdetegi berdina (1. Eranskina) 2. mailako eta 4. mailako ikasleei pasatuz, hauen artean ezberdintasunik zegoen aztertzeko. Bestalde, 2. mailako ikasleekin diseinu aurre-esperimentalaren zuten ikerketa burutu zen. Esku pilotaren UD bat eraman zen aurrera, galdetegi berdina pasa zen berriro eta prozesuaren inguruko galdera batzuk ere pasa zitzairen. Talde honek denboran zehar izan zuen garapena aztertu ahal izan zen modu honetan eta UD-ari buruzko iritzia jaso ere bai.

#### **4.3 PROZEDURA ETA TRESNAK**

Galdera sortu modu honetan aurrera eramateko, Arabako pilota elkartean sortutako galdetegi batetik abiatu naiz. Galdetegia pasatzeko, UD hasi baino lehen, lehenengo saioan, aurrera eraman da, irakaslea eta ni presente geundela. Eremua frontoia izan da, denak borobilean jarri ziren metro 2ko distantziarekin haien artean ez kopiatzeko. Galdetegiaren inguruan, ez zen azalpen handirik eman, esku pilotaren

inguruko galdetegia zela eta galderak erantzutea baino ez baina argi utzi zen zein zen hau egitearen funtzioa. Bestalde, 2. galdetegia, UD amaitu eta hurrengo saioan eraman zen aurrera, izan ere ezinezkoa izan zen momentuan egitea presaka geundelako eta aldageletara joan behar zirelako.

#### 4.4 ANALISI ESTADÍSTIKOA

Estatistika deskriptiboa erabili zen galdetegietako emaitzen maiztasunak, batz bestekoak eta desbideratze estandarrak kalkulatzeko. UD-aren aurretik kontingentzi taularen eta khi karratuaren frogaren bidez ondorengoa aztertu zen:

1) 1. galdetegian emandako erantzunak eta mailaren (2. edo 4. maila) arteko menpekotasuna.

2) 1. galdetegian emandako erantzunak eta sexuaren arteko menpekotasuna.

UD-ak 1. galdetegiko emaitzetan 2. eta 4. mailako ikasleengan izan zuen eragina ikusteko Wilcoxon-en froga erabili zen. Honela, bi taldeek unitate didaktikoaren aurretik emandako erantzunak ondoren emandakoarekin konparatu ahal izan ziren. Tamainaren efektua eta-karratuaren bidez zehaztu zen  $<0.06$  efektu txikia,  $0,06-0,14$  efektu ertaina eta  $> 0,14$  efektu handia kontsideratu zirelarik (Maher et al. 2013). Statistical Pack age for Social Sciences programa informatikoaren 26. bertsioa erabili zen analisi estatistikoak egiteko (SPSS Inc., Chicago, USA). Adierazgarritasun maila  $P \leq 0,05$  ean ezarri zen.

## 5. UNITATE DIDAKTIKOA:

Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 25. artikulua ezartzen duenez, programazio didaktikoa arlo eta irakasgai bakoitzeko planifikazio-, garapen- eta ebaluazio-tresna da; bertan zehazten dira curriculumeko elementuak, Ikastetxeko Curriculum Proiektuaren arabera, ikasleen ezaugarrietara moldatuta (Eusko Jaurlaritzak, 2021). Gutxienez honako elementu hauek izan behar ditu:

- Helburuak edo gaitasunak.
- Edukiak.
- Zereginak.
- Baliabideak.
- Ebaluazio irizpideak eta tresnak.

Hori horrela, lan honen autoreak derrigorrezko bigarren hezkuntzan zentratuta egongo zen 5 saioko proposamen didaktiko integral bat diseinatu zuen. Bertan, jakintza ezberdinen arteko lankidetzak eta elkartasunetik, diziplinartekotasunetik alegia, abiatu zen. Horretarako, aurretik aipatuko puntu bakoitza (helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, baliabideak eta zereginak) definitu, zer landu eta nola landu azaltzen da jarraian.

**Ikasgaia:** GORPUTZ HEZKUNTZA

**Gaia:** Esku pilota

**Maila:** Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH) 2. maila

**Saio Kopurua:** 5 saio

**Proposamenaren justifikazioa:**

Gure kulturaren guztiz errotuta esku pilota dugu, modalitate askotan eta herri guztietan jokatzen den aurkaritzako kirola; baina zenbat dakite gaur egungo ikasleek kirol honen inguruan? Unitate didaktiko honekin ikasleen grina piztea lortu nahi da euskal pilotarekiko.

Kirol erraz eta motibagarri honek oso progresio arina dauka eta aukera egokia da neskak eta mutilak Gorputz Hezkuntzako klaseetan jorratzeko.

<b>ARAZO EGOERA</b>
<b>Testuingurua</b>
Euskal kulturaren esku pilota da gehien ezagutzen den kirola, edo hori uste da. Askotan ikasle askok ez dute kirol honen berri edo beste askok kanpotarrak dira, beraz, ez dituzte guztion aukera berdinak eduki kirol honen inguruko informazioa bereganatzeko.
<b>Arazoa</b>
Gai izango ginateke ikasle askori kirol honen inguruko informazio gehiago emateko eta grina pizteko?
<b>Xedeak</b>
Ikasleek, Euskal pilotaren bidez, kirol honekiko ezagutza gehiago barneratzea eta haien interesa piztea.
<b>Helburuak</b>
Sekuentzia didaktikoan daude azalduta
<b>Atazak</b>
Euskal pilotarekiko ezagutza egokiak barneratzea eta kirol hau gehiago ezagutzea bere osotasunean haien grina piztuz.

### 1. Gaitasun orokorrak eta zeharkakoak

Gaitasun orokorrak eta zeharkakoak landu ziren unitate didaktiko honetan zehar. Nahiz eta gaitasun gehiago landu unitate guztian zehar, espezifikoki hiru gaitasunetan zentratu zen unitate didaktikoa Heziberri 2020 dekretutik abiatuta.

#### **Zeharkako gaitasunak:**

Elkarbizitzarako kompetentzia: Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz nor bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.

Osagaiak:

- Taldean ikastea eta lan egitea, nor bere ardurak onartuz eta helburu komunekoa lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.
- Norberaren eta besteren nahiak asebetete daitezela uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adieraztea eta kontuan hartzea.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia: Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.

Osagaiak:

- Ideiak sortzea, aukeratzea eta adieraztea (pentsamendu sortzailea)
- baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.

Norbera izaten ikasteko konpetentzia: Bizitzako hainbat egoera eta esparrutan norberari sortzen zaizkion sentimenduez eta pentsamenduez hausnartzea eta norberak egiten dituen ekintzez gogoeta egitea, eta, horien gainean egiten den balioespenari erreparatuta, haiek sendotzea edo doitzea.

Osagaiak:

- Motibazioa eta gogo-indarra autorregulatzea, erabakiak eta betebeharrak gauzatzeko.
- Emozioak autorregulatzea.


### **Gaitasun orokorrak:**



Konpetentzia motorra: Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.

- Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirolak, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.



- Jokabide motorra erabiltzea norberaren kultura-nortasuna sendotzeko, herriaren balioak indartzeko, eta kulturartekotasuna eta intrakulturalitatea onartu eta balioesteko
- Eguneroko bizitzan modu kontzientean barneratzea jarduera fisikoaren adierazpen guztiak, osasuna osotasunean zaintzeko eta hobetzeko eta bizitza orekatua izateko osagai ezinbestekoa den aldetik.



1. SAIOA			
<b>Unitate didaktikoa</b>	Esku Pilota	<b>Denbora</b>	45 min
<b>Lekua</b>	Pilotalekua edota horma.	<b>Maila</b>	DBH 2.maila
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konoak, zinta itsasgarria, esku-pilota bigunak eta hasierako galdetegiaren orria (1. eranskina)</li> </ul>		
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kolpea, pilotaren ibilbidea eta pilotarekiko kokapena</li> </ul>		
<b>Saioaren Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleen ezagutza identifikatu eta planteatzen den unitate didaktikaren aurrean haien motibazio piztea</li> <li>• Haien koordinazioa lantzea esku-pilota erabiliz, batez ere esku-begi koordinazioa.</li> <li>• Kolpeak eta harrerak era koordinatuan egitea.</li> </ul>		
Jarduerak			
<b>1. Jarduera</b>	“Unitate didaktikoaren aurkezpena”	<b>Denbora</b>	10min



<p>Ikasle guztiak batera. Ikasleak biribilean eseriko dira, eta irakasleak unitate didaktikoaren aurkezpena egingo du. Lehenik, euskal pilota ezagutzen duten galdetuko die irakasleak, eta ondoren, kirol horren inguruko azalpen batzuk emango ditu: euskal pilotan, bi pilotarik elkarren kontra jokatzen dute frontoi batean, eta pilota, txandaka jo edo jaurti behar dute frontisaren kontra. Sakean, pilotak behin frontisean jo eta gero, botea sake marraren atzealdean eman beharko du. Gainera, pilota jotzeko zein tantoa lortzeko hainbat aukera daude, betiere, ikasleen mailaren arabera, unitatean zehar ikusiko den bezala.</p> <p>Gero, irakasleak unitatearen helburua eta ebaluazio adierazleak zein diren zehaztuko ditu, eta horretarako egingo diren jarduerak azalduko. Ondoren, ikasleek <b>galdetegia (1. Eranskina)</b> bete dezakete, aurrez banatzeko denborarik izan ez bada.</p> <p>Azkenik, irakasleak lehen saio honetan egingo dena azalduko die ikasleei.</p>			
<p><b>2. Jarduera</b></p>	<p>“Pilota hartzen”</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10min</p>



<p>Hasieran, pilotari taktua eta sentsazio berriak hartu behar dituzte, horretarako eskuan pilota hartu eta hormara bota beharko dute, hau kolpatu gabe. Era honetan pilotaren norabidea barneratzen joango dira eta pilota eskuan edukitzearen sentsazioa handitzen joango da.</p> <p>Jarduera hau egiteko banaka hasiko dira baina behin norabidea kontrolatuta dutenean binaka jarriko dira. Hasieran batek bota beharko du pilota eta taldekidearen zeregina hau lehendabiziko botean hartzea eta berriro botatzea izango da.</p>			
<p><b>3. Jarduera</b></p>	<p>“Pilota kolpatzen”</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10min</p>
<p>Pilotari taktua eta sentsazio berriak hartu eta gero, pilota kolpatzen hasiko dira. Jarduera aurreko jardueran bezala planteatuko da. Hasieran banaka jardungo dute pilotaren kolpea ezagutu arte. Behin hau kontrolatzen dutenean binaka jarriko dira.</p> <p>Helburua ahalik eta pilotakada gehien lehendabiziko punpan jotzea izango da, baina ez baldin bada lortzen ez da ezer pasatzen, pilota hartu, airez jo, edota punpa gehiago emanda kolpatu dezakete.</p>			
<p><b>4. Jarduera</b></p>	<p>“Pilota pozoitsua”</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10min</p>






<p>Jarduera hau aurrera eramateko eremu zabal bat beharrezkoa da (10x10 edo 15x15)</p> <p>Jarduera honen helburua eremuaren alde batetik bestera igarotzea izango da baina hau ekiditeko lau ikasle eremuaren kanpoaldean egongo dira gomazko pilotekin. Kanpoan dauden ikasle hauek beste ikasleak kolpatu beharko dituzte haiek ere jaurtitzailak bihurtuz, era honetan ahalik eta jaurtitzaille gehiago lortuz korrikalari guztiak kanporatzeko.</p> <p>Jardueraren helburua pilotaren norabidearen kontrola izango da, baina aurreneko jarduerekin konparatuz abiadura handiagoan jaurti beharko dute pilota.</p> <p>Aldaerak: Jokalari batek pilota airez hartu ezkerro, jaurtitzaila den beste norbait libratu dezake</p>			
<b>5. Jarduera</b>	"luzaketak"	<b>Denbora</b>	5min
<p>Saioari amaiera emateko ikasleak luzapenak egingo dituzte gorputzeko atal guztiekin.</p>			
<b>2. SAIOA</b>			
<b>Unitate didaktikoa</b>	Esku Pilota	<b>Denbora</b>	45 min
<b>Lekua</b>	Pilotalekua edota horma.	<b>Maila</b>	DBH 2.maila
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pilotak</li> </ul>		
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kolpe motak eta pilotaren norabide ezberdinak ezagutzea</li> </ul>		



<b>Saioaren Helburuak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Begi-eskuen arteko koordinazioa lantzen jarraitzea.</li> <li>• Pilota jotzean norabide eta indar egokiak erabiltzea.</li> <li>• Unitate guztian landuko den bat baten aurkako dominoaren dinamika ezagutzea eta kontrolatzea. Esku pilotaren arauak jarraituz.</li> </ul>	
<b>Jarduerak</b>			
<b>1. Jarduera</b>	“Saioaren aurkezpena”	<b>Denbora</b>	10min
<p>Irakasleak aurreko saioan egindako gogoraraziko die ikasleei eta saio honetan egingo dena planteatuko die.</p> <p>Esku-pilotan trebatzen jarraitzeko, zenbait jarduera eta jolas egingo dituzte ikasleek eskolako pilotalekuan.</p>			
<b>2. Jarduera</b>	“ bat baten aurka”	<b>Denbora</b>	10min
<p>Beroketa moduan haien artean jolastuko dute, baina ez da horman izango. Jarduera hau aurrera eramateko bi marra barri beharko dira lurrian eta ikasle bakoitza marraren atzealdean kokatuko da. Ikasleak pilota batekin jardungo dute eta pilotak bi marren artean egin beharko du punpa, beste eremura pasatuz. Beste eremuan, ikasleak, airez hartu beharko du pilota eta berriz era aurkariari pilota bidali era berdinean. 5 puntu lortzen dituen ikasleak garailea izango da eta haien artean txandakatu beharko dira ikasle gehiagorekin jolastuz, bikoteak aldatuz.</p>			
<b>3. Jarduera</b>	“praktikatzen”	<b>Denbora</b>	10min




<p>Aurreko jardueran egindako lehiaketa horman egin beharko dute. Honetarako lauuko talde txikietan sakabanatuko dira eremu guztitik zehar, talde bakoitza frontoi horma batean egonik. Bi ikaslek haien artean jolastuko dute eta beste bi ikasleek haien txandaren zain egongo dira. Lehian dauden ikasleen helburua 3 tanto egitea izango da eta galtzaileak kanpoan dagoen beste ikasleari lekua utziko dio, era honetan denok jokatuz.</p>			
<p><b>4. Jarduera</b></p>	<p>“Sakea lantzen”</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10min</p>
<p>Aurreko saioaren taldeak eta lekuak mantenduz, sakea landuko dute, izan ere pilotaren mugimendua nahiko kontrolatuta izango dutelako. Aurreko jardueraren dinamika berdina izango da: bi jolasean eta bi kanpoan. Jolasean dagoen ikasleak hiru sake egingo ditu, eta besteak, ahal izanez gero, errestoa egingo du; hau da, sakea altxatzen ahaleginduko da. Hiru saiakerak egin ondoren, rolak aldatuko dituzte.</p> <p>Ariketa aurrera joan ahala irakasleak zailtasunak ikusiz gero, ikasleekin hitz egin ahal du haiei lagunduz. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pilotari, jo aurretik, bote bat eginarazi behar zaio (aurrera aldera, gerrirainoko botea egin behar da).</li> <li>- Jo behar dugun eskuaz bestaldeko oina aurreratu behar da.</li> <li>- Pilota behetik gora jo behar da, altuera hartu eta alde aurretik seinatu den marra gainditu ahal izateko.</li> </ul>			

<b>5. Jarduera</b>	“Luzaketak”	<b>Denbora</b>	5min
<p>Saioari amaiera emateko ikasleak luzapenak egingo dituzte gorputzeko atal guztiekin.</p>			
<b>3. SAIOA</b>			
<b>Unitate didaktikoa</b>	Esku Pilota	<b>Denbora</b>	45 min
<b>Lekua</b>	Pilotalekua edota horma.	<b>Maila</b>	DBH 2.maila
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pilota, zinta eta uztaileak</li> </ul>		
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oposizioan norabide ezberdinak lantzeko aukerak</li> <li>• Jotzen ez duenaren kokapen ezberdinak</li> </ul>		
<b>Saioaren Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pilota jotzean norabide eta indar egokiak erabiltzea.</li> <li>• Aurkariaren arabera espazioan ondo kokatu eta desplazatzea.</li> <li>• Aurkariak jokoan duen parte hartzeaz ohartu.</li> <li>• Aurkariaren mugimenduak aurreikusi.</li> </ul>		
<b>Jarduerak</b>			
<b>1. Jarduera</b>	“Saioaren aurkezpena”	<b>Denbora</b>	5min
<p>Irakasleak aurreko saioan egindako gogoraraziko die ikasleei eta saio honetan egingo dena planteatuko die.</p> <p>Esku-pilotan trebatzen jarraitzeko, zenbait jarduera eta jolas egingo dituzte ikasleek eskolako pilotalekuan.</p>			



2. Jarduera	"Zelaia hustu"	Denbora	10min
<p>Jarduera honetan ikasle guztiak batera egongo dira. Ikasleak bi taldetan banaturik, talde bakoitza 10 metro luze eta 10 metro zabal duen zelai batean aurrez aurre kokatuta, tartean 10 metro luze eta 5 metro zabal den esparru bat dutela (ikasleentzat debekatutako esparrua). Jolasaren hasieran, talde bakoitzak hamar pilota izango ditu. Helburua pilotarik gabe gelditzea da, eta horretarako, pilotak aurkarien zelaira jaurti behar dira. Jaurtiketak eskuz kolpatuz egingo dira; bai gelditu eta bote eman ondoren, bai airez datorren bezala zuzenean emanda. Debekatutako esparruan geratzen diren pilotak ezingo dituzte hartu edo kolpatu.</p> <p>Irakasleak epaile lanak egingo ditu, eta txilibituaren bidez jolasaren hasiera eta amaiera adieraziko ditu. Behin jolasa amaituta, ikasleek ezingo dute pilotarik ukitu eta geldirik egon beharko dute estatuak balira bezala. Irakasleak pilota zenbaketa egingo du ikasleen esparruetan, eta pilota kopuru txikiena duen taldeari puntu bat emango dio.</p> <p>Aldaera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleak hartu duen toki beretik jaurtitzea pilota, inolako lekualdatzerik egin ahal izan gabe.</li> </ul>			
3. Jarduera	"Kontaketa lurrean"	Denbora	10min



<p>Launaka. Frontoian, mugatutako hainbat txokotan sakabanatuko dira ikasleak, eta txoko bakoitzean, lau ikasle jarriko dira, bi jolasean eta beste biak zain. Jolasean ari direnak partida bat jokatuko dute hiru tantora. Partida galtzen duenak jolasa utzi eta kantxatik irten beharko du, eta haren ordeztan, zain dagoen ikasle bat sartuko da. Baina jolas honetan esparru puntuagarriak ezarriko dira, zirkulu edo lauki bidez adierazita (+1), toki horietan pilotari bote egin arazten dion jokalaria zuzenean puntu bat eskuratuko du. Era horretan, tanto bat eskuratzen den bakoitzean, tantoa bukatuko da eta puntua eskuratu duenak sarea egingo du tanto berri bati ekinez. Hiru aldiz jarraian irabazten duen jokalaria ere kantxatik kanpora irtengo da.</p>			
<p><b>4. Jarduera</b></p>	<p>“Gune Debekatuak”</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>5min</p>
<p>Jarduera hau launaka burutuko da. Kasu honetan, aurreko jardueraren helburu alderantzizkoa izango da, hau da, pilota ezin izango da uztail barruan sartu, hau gertatzen bada puntu bat kenduko zaielako. Partida 3 puntutara jolastuko da, galtzaileak kanpoan itxaron beharko du eta kanpoan dagoen beste ikaslea partidua jolastera sartuko da. Ikasle batek 3 partidu segituan irabazten baldin badu kanpora irtengo da ere, era honetan gainerako ikasleei jolasten uzten.</p>			
<p><b>5. Jarduera</b></p>	<p>“Primiak”</p>	<p><b>Denbora</b></p>	<p>10min</p>



<p>Bi taldetan bananduko da gela eta talde bakoitza hormaren eremu batean egongo da. Denak denen aurka jolastu beharko dute eta falta egiten duen ikaslea kanporatua izango da. Era honetan irabazle bat geratuz eta horrek “primia” lortuz. Primariaren balioa oso garrantzitsua da, izan ere, kanporatua izatetik salbatzen du, hau da, bizitza estra baten moduan izango litzateke.</p>			
<b>6. Jarduera</b>	Luzaketak	<b>Denbora</b>	5min
<p>Saioari amaiera emateko ikasleak luzapenak egingo dituzte gorputzeko atal guztiekin.</p>			
<b>4. SAIOA</b>			
<b>Unitate didaktikoa</b>	Esku Pilota	<b>Denbora</b>	45 min
<b>Lekua</b>	Pilotalekua edota horma	<b>Maila</b>	DBH 2.maila
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gomazko baloiak, pilotak eta uztailak</li> </ul>		
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Oposizioan norabide ezberdinak lantzeko aukerak.</li> <li>Jotzen ez duenaren kokapen ezberdinak.</li> <li>Aurreko jardueretan landutako hobetu.</li> </ul>		
<b>Saioaren Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Pilota jotzearen orduan indar egokia aplikatzea eta nahi duen norabidea ematea.</li> <li>Aurkariak jokoan duen parte hartzeaz ohartu.</li> </ul>		
<b>Jarduerak</b>			
<b>1. Jarduera</b>	“Saioaren aurkezpena”	<b>Denbora</b>	10min

<p>Irakasleak aurreko saioan egindako gogoraziko die ikasleei eta saio honetan egingo dena planteatuko die.</p> <p>Esku-pilotan trebatzen jarraitzeko, zenbait jarduera eta jolas egingo dituzte ikasleek eskolako pilotalekuan.</p>			
<b>2. Jarduera</b>	“Baloi errea”	<b>Denbora</b>	10min
<p>Talde handian: Beroketa moduan talde guztia eremu zabal batean kokatuko da (ikasle kopuruaren arabera eremua handiago edo txikiago eginez). 3 gomazko baloi handi emango zaie ikasleei eta baloi hauekin beste ikasleak kolpatu beharko dituzte. Behin baloia eskuetan dutela ezingo dira eremutik desplazatu eta jaurtitzerakoan beste ikasleak airez hartzen badu jaurtitzaila eliminatuko da. Kanporatzea lurrean eserita egotea da eta kasualitatez pilota hartzea lortzen baldin badu berriz ere jokora bueltatu daiteke, eserita dauden beste ikasleak salbatzeko aukerarekin edo beste ikasleak eliminatzen jarraitzeko aukerarekin.</p>			
<b>3. Jarduera</b>	“Eremua banatzen eta menperatzen”	<b>Denbora</b>	10min
<p>Jarduera hau lauko taldeetan eramango da aurrera. Aurreko jardueretan erabilitako horma berdina erabiliko da baina kasu honetan lur eremua erditik zatituko da. 2 pertsona haien artean jokatuko dute, bakoitza alde batean egongo da eta baldintza pilotaren botea aurkariaren eremuan egitea izango da.</p>			
<b>4. Jarduera</b>	“zirkuitoa”	<b>Denbora</b>	10 min



<p>Jarduera hau aurrera eramateko aurreko ariketan egindako taldeetan banatuko dira eta zirkuitua errotazio-sistema bidez osatuko dute. Gainera, azken inkesta eramango dute aurrera, unitate didaktikoaren funtzioa bete den ikusteko.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Pilota, distantzia batetik jaurtiz, horman dagoen uztaian sartu behar da gutxienez hiru aldiz.</li> <li>2. Hiru sake on egitea lortu behar da.</li> <li>3. Batak bestearen atzetik, ikasle guztiek lau aldiz bota behar dute pilota hormara. Bote eginez edo airez izan daiteke.</li> <li>4. Bat baten aurkako partida hiru tantora.</li> </ol>			
<b>5. Jarduera</b>	“Luzaketak”	<b>Denbora</b>	5min
<p>Saioari amaiera emateko ikasleak luzapenak egingo dituzte gorputzeko atal guztiekin.</p>			
<b>5. SAIOA</b>			
<b>Unitate didaktikoa</b>	Esku Pilota	<b>Denbora</b>	45 min
<b>Lekua</b>	Pilotalekua edota horma	<b>Maila</b>	DBH 2.maila
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Palak, pilota eta uztaiak</li> </ul>		
<b>Edukiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Palarekin kolpea</li> <li>• Pilotaren norabidea palarekin</li> <li>• Pala ezagutzea</li> </ul>		

<b>Saioaren Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pala erabiltzen hastea.</li> <li>• Palaz boteak, kolpeak eta erantzunak koordinatzea.</li> </ul>		
<b>Jarduerak</b>			
<b>1. Jarduera</b>	“Saioaren aurkezpena”	<b>Denbora</b>	10min
<p>Irakasleak aurreko saioan egindako gogoraziko die ikasleei eta saio honetan egingo dena planteatuko die.</p> <p>Esku-pilotan trebatzen jarraitzeko, zenbait jarduera eta jolas egingo dituzte ikasleek eskolako pilotalekuan.</p>			
<b>2. Jarduera</b>	“Pala ezagutzea”	<b>Denbora</b>	10min
<p>Binaka; bata palaz eta bestea eskuz. Batak pilotari eskuz emango dio hormaren kontra eta besteak palaz erantzungo dio bote egin ondoren; eta alderantziz. Ariketa bera, baina palaz ari denak airez erantzungo dio eta eskuz dabilena airean hartzen saiatuko da.</p> <p>Ariketa bera, baina eskuz jotzen ari denak pilota zailago jarriko dio: eskuinera, ezkerrera, hurbilera edo urrutira jaurtiz. Palaz ari denak, berriz, hura dagoen tokira bidaliz erantzungo dio, pilotaren noranzkoa eta hari eman beharreko indarra aintzat hartuz.</p> <p>Azkenik, biak palaz hormaren kontra bata besteari erantzuten saiatuko dira.</p>			
<b>3. Jarduera</b>	“Kiniela palaz”	<b>Denbora</b>	10min

<p>Launaka. Ikasleak frontoian mugatutako hainbat txokotan sakabanatuko dira, eta txoko bakoitzean, lau ikasle kokatuko dira, bi jolasean eta beste biak zain. Jolasean ari diren ikasleak palaz, bat baten aurka arituko dira tanto bakar batera. Tantoa lortzen duenak puntu bat eskuratuko du, galtzen duenak, ordea, jolasa utzi eta kantxatik irten beharko du, eta haren ordeaz zain dagoen ikasle bat sartuko da. Hiru aldiz jarraian irabazten duen jokalaria ere kantxatik kanpora irtengo da, eta sei puntu lortzen dituen lehen jokalaria irabaziko du.</p>			
<b>4. Jarduera</b>	“Gune debekatuak palaz”	<b>Denbora</b>	10min
<p>Launaka. Aurreko ariketan erabilitako dinamika berdina. Kasu honetan, jolasean ari diren ikasleak palaz, bat baten aurka arituko dira, baina tanto bakar batera. Irakasleak lurrean gune batzuk markatuko ditu klarionaz, hain zuzen, gune debekatuak, eta arau bat gehituko zaio jolasari; hots, pilotak ezin du boterik eman lurrean markatuta dauden gune debekatuetan, baina horrela gertatuz gero, pilota jo duen jokalaria puntu galduko du; beraz, jolasa utzi eta kantxatik irten beharko du, eta haren ordeaz zain dagoen ikasle bat sartuko da. Tantoa lortzen duenak puntu bat eskuratuko du, eta ikasle batek hiru puntu jarraian eskuratzen baditu, hura ere kantxatik irtengo da. Jolasean hasi eta hamar minutura puntu gehien lortzen dituen jokalaria irabaziko du.</p>			
<b>5. Jarduera</b>	“Luzaketak”	<b>Denbora</b>	10min

Saioari amaiera emateko ikasleak luzapenak egingo dituzte gorputzeko atal guztiekin.



## 6. EMAITZAK

Ikerketaren emaitzak 3 ataletan banatu ziren.

- UD-aren aurretik 1. galdetegian emandako erantzunak eta mailaren (2. edo 4. maila) arteko menpekotasuna aztertu zen kontingentzi taularen eta khi karratuaren frogaren bidez.
- UD-ak 1. galdetegiko emaitzetan 2. eta 4. mailako ikasleengan izan zuen eragina ikusteko Wilcoxon-en froga erabili zen. Honela, bi taldeek unitate didaktikoaren aurretik emandako erantzunak ondoren emandakoarekin konparatu ahal izan ziren.
- Kontingentzi taulak eta Khi karratuaren froga erabili ziren UD aurrera eramane baino arinagoko emaitzetan ikasleen sexuaren eta galderen emaitzen artean menpekotasuna zegoen edo ez aztertzeko.

### UD aurretik 1. Galdetegiko emaitzen eta mailaren arteko menpekotasuna:

Lehenengo (3. eranskina), bigarren (4. eranskina) eta hirugarren (5. eranskina) galderetan ikasleak pilotan jokatzeari gogoko zuten, pilotan jokatzen ez zuten eskolatik kanpo eta telebistan pilota ikusten al zuten adierazi behar zuten, hurrenez hurren. Khi karratuaren frogak adierazi zuten ez zegoela menpekotasunik ikasleen mailaren eta galdera horien erantzunen artean ( $P = 0,93$ ;  $P = 0,45$  eta  $P = 0,63$ , hurrenez hurren). Bigarren mailan zein laugarrenean *Ez, gutxi* eta *Bai, dezente* erantzunak izan ziren pilotan jokatzeari gogoko zuten eta telebistan pilota ikusten al zuten galdetean maiztasun handiena izan zuten erantzunak. Eskolatik kanpo ea pilotan jokatzen zuten galdetean, ikasle gehienek, bigarren zein laugarren mailakoek, *Ezer ez* erantzun zuten.

Laugarren galderan ikasleek ea euskal pilotaririk ezagutzen zuten adierazi behar zuten eta jakitekotan haien izenak jarri behar zituzten. Galdera honetan, khi karratuaren frogak mailaren eta emaitzen artean menpekotasun adierazgarria zegoela adierazi zuten ( $P = 0,002$ ). Lehenengo taulan ikus daiteke 2. mailako ikasleek euskal

pilotari gehiago ezagutzen zituztela 4. mailakoek baino.

**1. taula:** Maila eta 4. galderaren emaitzak uztartzen dituen kontingentzi taula

		4. galdera				Guztizkoa
		0	1	2	2+	
Maila 2	Maiztasuna	9	33	15	22	79
	Esperotako maiztasuna	11,9	30,7	21,6	14,8	79,0
	Maila barneko %-a	11,4	41,8	19,0	27,8	100,0
	4. galdera barneko %-a	42,9	61,1	39,5	84,6	56,8
	Guztizko %-a	6,5	23,7	10,8	15,8	56,8
4	Maiztasuna	12	21	23	4	60
	Esperotako maiztasuna	9,1	23,3	16,4	11,2	60,0
	Maila barneko %-a	20,0	35,0	38,3	6,7	100,0
	4. galdera barneko %-a	57,1	38,9	60,5	15,4	43,2
	Guztizko %-a	8,6	15,1	16,5	2,9	43,2
Guztizkoa	Maiztasuna	21	54	38	26	139
	Esperotako maiztasuna	21,0	54,0	38,0	26,0	139,0
	Maila barneko %-a	15,1	38,8	27,3	18,7	100,0
	4. galdera barneko %-a	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
	Guztizko %-a	15,1	38,8	27,3	18,7	100,0

Bosgarren (6. eranskina) eta seigarren (7. eranskina) galderetan ikasleak adierazi behar zuen euskal pilotako ze espezialitate ezagutzen zituen eta ea espezialitate horiek praktikatzen zituen, hurrenez hurren. Khi karratuaren frogak adierazi zuen ez zegoela menpekotasunik ikasleen mailaren eta galderen erantzunen artean ( $P = 0,37$  eta  $P = 0,38$ , hurrenez hurren). Ikasle gehienek, 2. mailako zein 4. mailakoek, espezialitate bakarra ezagutzen zuten eta ez zuten praktikatzen.

**UD-aren eragina ikasleetan 1. galdetegiari: 2. mailako ikasleak (interbentzio taldea):** 2. Taulan 2. mailako ikasleek galderetan UD-aren aurretik eta ondoren izandako emaitzen batzuetan bestekoa, desbideratze estandarra eta adierazgarritasun mailak azaltzen dira. 6. galderan izan ezik, UD aurrera eramateak eragin esanguratsua izan zuen galderetako erantzunetan, hau da, UD egin aurretiko galdetegiak eta ondorengoak emaitza ezberdinak jaso zituentamainaren efektua galdera guztietan, azkenengoan izan ezik, altua da 0,14 baino handiagoa delako, 6. galderan izan ezik, galdera honetan efektua txikia, 0,03, izanik. Zehazki, taula honetan ikusten da galderen batzuetan besteko erantzunen balioa igo egin zela, honek haien esku pilotaren inguruko gogoak eta jakintzak handitu egin zirela adierazten du. Seigarren galdera esku pilota praktikatzearren ingurukoa zen. Ikusten den bezala, ikasleek ez zuten esku pilota gehiago praktikatzen UD praktikan jarri baino arinagoko datuekin konparatuz.

## 5. Taula: 2. mailako ikasleen emaitzak UD aurretik eta ondoren

	1. galdera	2. galdera	3. galdera	4. galdera	5. galdera	6. galdera
UD aurretik	2,66±1,01	1,97±1,09	2,63±0,82	1,63±1,02	1,20±0,54	0,48±0,66
UD ondoren	2,97±0,89	2,25±1,12	2,87±0,90	1,94±0,95	1,44±0,55	0,52±0,66
Tamainaren efektua	0,32	0,28	0,24	0,31	0,24	0,03
Adierazgarritasun maila	<,001	<,001	<,001	<,001	<,001	,083

UD aurretik eta ondorengo galdetegiaren balioak bataz bestekoak ± desbideratze estandarra dira.

**4. mailako ikasleak (kontrol taldea, interbentziorik ez zuten jaso):** 3. taulan 4. mailako ikasleek galderetan UD-aren aurretik eta ondoren izandako emaitzak azaltzen dira. 4. mailako ikasleekin, 2. mailakoekin ez bezala, orokorrean ez zen ezberdintasun adierazgarririk ikusi, hau da, UD aurretik eta ondoren izandako 1. galdetegiaren emaitzak antzekoak izan ziren, beraz haiek esku pilotari buruz zuten ezagutza eta interesa ez zen handitu. Hala ere, 5. galderan ezberdintasuna adierazgarria izan zela erakutsi digu Wilcoxon testak, galdera hau euskal pilotarien ingurukoa zen, ea zenbat pilotari ezagutzen zituzten hain zuzen. Bertan ikusi daiteke pilotari gehiagoren berri zutela eta izen gehiago jarri zituztela aurreko galdetegiarekin konparatuz. Tamainaren efektua 5. galderan izan ezik txikia izan zen, 0,06 baino txikiagoa delako, 5. galderan, ordea, efektua ertaina da, 0,07koa izanik.

## 6. Taula: 4. mailako ikasleen emaitzak UD aurretik eta ondoren

	1. galdera	2. galdera	3. galdera	4. galdera	5. galdera	6. galdera
UD aurretik	2,65±0,99	2,15±1,09	2,53±0,91	1,32±0,87	1,12±0,61	0,58±0,65
UD ondoren	2,58±1,00	2,18±1,11	2,50±0,89	1,32±0,87	1,18±0,60	0,58±0,65
Tamainaren efektua	0,04	0,01	0,01	0	0,07	0
Adierazgarritasun maila	,102	,414	,414	1,000	,046	1,000

UD aurretik eta ondorengo galdetegiaren balioak bataz bestekoak ± desbideratze estandarra dira.

**UD aurretik ikasleek izandako 1. galdetegiaren emaitzak sexuaren arabera:** 1. galderan (pilotan jokatzeari gogoko izatearen galderan, 8. eranskina) eta 3. galderan (ea telebistan pilota ikusten zuten, 9. eranskina) ez zen menpekotasunik egon sexuaren eta emaitzen artean. Gainontzeko galderetan menpekotasuna egon zen sexuaren eta emaitzen artean, zehazki, mutilek askoz gehiago jolasten zuten esku pilotara neskek baino (3. taula). Ezagutzaren inguruko galderetan (4. eta 5. taulak) ezberdintasun nabariak ikusi ziren mutilen eta nesken artean, mutilak izanda kirolaren inguruko jakintza gehiago zutenak. Amaitzeko, espezialitate gehiago praktikatzen zituzten mutilek neskek baino (6. taula).

**7. Taula:** Sexua eta UD aurretik 2. galderako (pilotan jokatu eskolatik kanpo) emaitzak uztartzen dituen taula gurutzatua

		2. GALDERA					
		Ez, Ezer ez	Ez, gutxi	Bai, dezente	Bai, asko	Guztizkoa	
SEXUA	MUTILA	Maiztasuna	20	16	18	14	68
		Esperotako maiztasuna	29,4	14,7	15,2	8,8	68,0
		Sexu bereko %-a	29,4%	23,5%	26,5%	20,6%	100,0%
		2 galderaren barneko %-a	33,3%	53,3%	58,1%	77,8%	48,9%
		Gutzizko %-a	14,4%	11,5%	12,9%	10,1%	48,9%
NESKA	Maiztasuna	40	14	13	4	71	
	Esperotako maiztasuna	30,6	15,3	15,8	9,2	71,0	
	Sexu bereko %-a	56,3%	19,7%	18,3%	5,6%	100,0%	
	2 Galderaren barneko %-a	66,7%	46,7%	41,9%	22,2%	51,1%	
	Gutzizko %-a	28,8%	10,1%	9,4%	2,9%	51,1%	
Total	Maiztasuna	60	30	31	18	139	
	Esperotako maiztasuna	60,0	30,0	31,0	18,0	139,0	
	Sexu bereko %-a	43,2%	21,6%	22,3%	12,9%	100,0%	
	2 Galderaren barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	
	Gutzizko %-a	43,2%	21,6%	22,3%	12,9%	100,0%	

Khi karratuaren frogan  $P = 0,004$

**8. Taula:** Sexua eta UD aurretik 4. galderako (ezagutu euskal pilotaririk) emaitzak uztartzen dituen taula gurutzatua

		4. GALDERA					
		0	1	2	+2	Gutzizkoa	
SEXUA	MUTILA	Maiztasuna	7	19	21	21	68
		Esperotako maiztasuna	10,3	26,4	18,6	12,7	68,0
		Sexu bereko %-a	10,3%	27,9%	30,9%	30,9%	100,0%
		4 Galderaren barneko %-a	33,3%	35,2%	55,3%	80,8%	48,9%
		Gutzizko %-a	5,0%	13,7%	15,1%	15,1%	48,9%
NESKA	Maiztasuna	14	35	17	5	71	
	Esperotako maiztasuna	10,7	27,6	19,4	13,3	71,0	
	Sexu bereko %-a	19,7%	49,3%	23,9%	7,0%	100,0%	
	4 Galderaren barneko %-a	66,7%	64,8%	44,7%	19,2%	51,1%	
	Gutzizko %-a	10,1%	25,2%	12,2%	3,6%	51,1%	
Total	Maiztasuna	21	54	38	26	139	
	Esperotako maiztasuna	21,0	54,0	38,0	26,0	139,0	
	Sexu bereko %-a	15,1%	38,8%	27,3%	18,7%	100,0%	
	4 Galderaren barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	
	Gutzizko %-a	15,1%	38,8%	27,3%	18,7%	100,0%	

Khi karratuaren frogan  $P < 0,001$

**9. Taula:** Sexua eta UD aurretik 5. galderako (euskal pilotako espezialitateen ezagutza) emaitzak uztartzen dituen taula gurutzatua

		5. GALDERA			Gutzizkoa	
		0	1	2		
SEXUA	MUTILA	Maiztasuna	6	37	25	68
		Esperotako maiztasuna	6,4	44,0	17,6	68,0
		Sexubereko %-a	8,8%	54,4%	36,8%	100,0%
		5.Galderaren barneko %-a	46,2%	41,1%	69,4%	48,9%
		Gutzizko %-a	4,3%	26,6%	18,0%	48,9%
NESKA	MUTILA	Maiztasuna	7	53	11	71
		Esperotako maiztasuna	6,6	46,0	18,4	71,0
		Sexubereko %-a	9,9%	74,6%	15,5%	100,0%
		5 Galderaren barneko %-a	53,8%	58,9%	30,6%	51,1%
		Gutzizko %-a	5,0%	38,1%	7,9%	51,1%
Total	MUTILA	Maiztasuna	13	90	36	139
		Esperotako maiztasuna	13,0	90,0	36,0	139,0
		Sexu bereko %-a	9,4%	64,7%	25,9%	100,0%
		5 Galderaren barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
		Gutzizko %-a	9,4%	64,7%	25,9%	100,0%

Khi karratuaren frogan  $P = 0,016$

**10. Taula:** Sexua eta UD aurretik 6. galderako (ea espezialitateak praktikatzen dituen) emaitzak uztartzen dituen taula gurutzatua

		6. GALDERA			Total	
		0	1	2		
SEXUA	MUTILA	Maiztasuna	31	28	9	68
		Esperotako maiztasuna	38,2	24,0	5,9	68,0
		Sexu bereko %-a	45,6%	41,2%	13,2%	100,0%
		6 Galderaren barneko %-a	39,7%	57,1%	75,0%	48,9%
		Gutzizko %-a	22,3%	20,1%	6,5%	48,9%
NESKA	MUTILA	Maiztasuna	47	21	3	71
		Esperotako maiztasuna	39,8	25,0	6,1	71,0
		Sexu bereko %-a	66,2%	29,6%	4,2%	100,0%
		6 Galderaren barneko %-a	60,3%	42,9%	25,0%	51,1%
		Gutzizko %-a	33,8%	15,1%	2,2%	51,1%
Total	MUTILA	Maiztasuna	78	49	12	139
		Esperotako maiztasuna	78,0	49,0	12,0	139,0
		Sexu bereko %-a	56,1%	35,3%	8,6%	100,0%
		6 Galderaren barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
		Gutzizko %-a	56,1%	35,3%	8,6%	100,0%

Khi karratuaren frogan  $P = 0,027$



## 7. EZTABAIDA

Emaitzen laburpen bat eginez, hasteko, UD-aren aurretik 1. galdetegian emandako erantzunak eta mailaren (2. edo 4. maila) arteko menpekotasuna aztertu zen kontingentzi taularen eta khi karratuaren frogaren bidez. Froga honetan orokorrean ez zen ezberdintasun adierazgarririk ikusi bi maila hauen artean, aldaketa nabarmenak ikusi ziren galdera bakarria euskal pilotarien ezagutzen ingurukoa da, galdera honetan 2. mailakoak nahiz eta adinez txikiagoak izan euskal pilotari gehiagoren izenak zekiten. Beraz, 2. eta 4. mailakoen ezagutza eta interesa antzekoa da euskal pilotarien ezagutza alde batera utziz. Horrez gain, UD aurretiko eta ondorengoko galdetegiko emaitzak aztertu ziren mailaz maila, era honetan aurretik emandako erantzunak ondoren emandakoarekin konparatuz eta UD-aren eragina ikusiz ikasleengan. 2. mailakoek esku pilotaren inguruko ezagutza eta interesa asko handitu zutela ikusi da, izan ere, 6. galderan izan ezik (esku pilota praktikatzen duten edo ez) beste guztietan aldaketa nabarmenak ikusi ziren UD ondoren egindako galdetegiaren emaitzetan UD aurretik egindakoarekin konparatuz. Horrez gain, 4. mailakoen erantzunek ez zituzten orokorrean aldaketa nabarmenik izan. Datu hauek adierazten digute UD-ak eragin positiboa izan zuela 2. mailako ikasleengan (interbentzio taldean).

Kontingentzi taulak eta Khi karratuaren froga baita erabili ziren UD aurrera eramane baino arinagoko emaitzetan ikasleen sexuaren eta galderen emaitzen artean menpekotasuna zegoen edo ez aztertzeko. Alderdi honetan, galdera batzuetan emaitza adierazgarriak izan ziren baina beste batzuetan ez, hau da, 1. eta 3. galderan izan ezik (ea pilota gogoko zuten eta telebistan pilota ikusten zuten, hurrenez hurren), beste galderetan ezberdintasun nabariak egon ziren mutilen eta nesken erantzunen artean, mutilek esku pilotari buruzko ezagutza eta interes gehiago adieraziz neskek baino.

UD-ak pilotari buruzko interesa eta jolasteko gogoia handitu zuen ikasleengan. Eragin hau, oso interesgarria izan daiteke, izan ere, kirola praktikatzeko pertsonen garapen integralari laguntzen dio. Kirola fenomeno soziala eta kulturala da (Cuberos et al., 2020) eta kirolaren gizarte- eta hezkuntza-ahalmen handiak justifikatzen du, hau bera DBH-ko curriculumean sartzea (Moreno et al., 2021). Beraz, interesgarria da alderdi horiek etorkizunean kontuan hartzea, ikasleek GH-ko eskoletan parte har dezaten sustatzeko eta, hartara, gure ikasleen kirol-praktika sustatzeko. Esan beharrik ere ez dago kirolak izan dezakeen gizarteratze-ahalmena oso handia dela, baldin eta kirola hezkuntza-helburu batzuetara bideratzen bada (Castro et al., 2016). Beraz, guzti hau kontuan edukiz, esan daiteke GH-ren garrantzia oso handia dela eta umeei kirola

egitea bultzatu behar zaiela.

DBH-ko ikasleak GH-ri buruz duen pentsamendua interes handiko gaia da irakasleen artean. Pentsamendu hori zehazten duten aldagai asko daude: ikasleak GH-ri ematen dion garrantzia eta interesa, eskolaz kanpoko kirol-jarduna eta praktika hori zein testuingurutan egiten den, besteak beste. Honen inguruan, Moreno et al.-ek 2006an argitaratutako ikerketa batean ondorio nagusi hauek atera zituen: GH-ko 12-13 urteko ikasleei gehiago gustatzen zaiela 14-15 urtekoei baino, eta oso garrantzitsua dela, besteekin harremanak izaten eta azkarragoak izaten laguntzen baitie. Morenok (2006) lortutako emaitzekin konparatuz, egindako ikerketa honetan ez da menpekotasunik ikusi 13-14 eta 15-16 urte bitarteko ikasleen artean, haien esku pilotako interesa antzekoa izanik eta 13-14 urte bitarteko ikasleen ezagutza 14-15 urte bitartekoena baino handiagoa izanik.

DBH-n GH irakasgaiaren eduki gisa kirol alternatiboak, herri kirolak eta egokitutako kirolak sartzea jarduera erakargarria eta motibagarria da ikasleentzat, zehazki, Rodriguez-ek 2006-an argitaratutako lan batean itsuentzat pentsatutako judoaren UD bat burutu zuen DBH-ko ikasleetan. 15-16 urteko ikasleak hartu zuten parte eta unitate didaktiko honetan erabilitako metodologia informazio bilaketa izan zen. Unitate didaktiko honen bitartez, erakutsi zen ere era motibagarrian asko lagundu daitekeela DBH-ko ikasleei, izan ere, hauen emaitzetatik abiatuz ikus dezakegu haien interesa eta ezagutza esku pilotaren inguruan asko handitu dela UD aurretik eta ondoren konparatuz gero, UD hau ondo planteatzen baldin bada eta planteamendu egokia baldin badu.

Honen harira, 2. galdetegiaren emaitzetan feedback ezin hobea izan nuen ikasleen partetik, planteatutako ariketa guztiak oso egokiak zirela adieraziz eta ez zutela gauza askorik aldatuko nabarmenduz. Horrez gain, gehienek haien interesa areagotu dela azaldu zuten, eta emaitzekin konparatuz datu hau bete dela ziurtatu dezakegu. Gainera, aipatu moduan, UD-a ondo planteatuta dagoenez, gauza berri asko ikasi dutela adierazi dute. Adibidez: teknikaren hobekuntza, talde lanaren garrantzia, adiskidetasuna, joko garbia, etab. Hauek esku pilotak bultzatzen dituen baloreen artean egonik eta UD-aren bitartez lortu nahi zen helburua lortuz, haien interesa, inplikazioa eta ezagutza areagotuz.

### **Lanaren mugak**

Lan honek hainbat muga ditu. Lan honen egileak aurretik ezagutzen zituen ikasleak eta posible zen ikasleek ikerlaria serio ez hartzea edo UD aurrera eramaterakoan irakasle moduan ez ikustea. Horrez gain, ezinezkoa izan da kontrol

taldea talde esperimentalaren maila berdinekoa izatea, hain zuzen, ezinezkoa zelako maila berekoak unitate didaktiko gabe uztea. Ikerketaren mugekin amaitzeko, ez da galdetegiaren fidagarritasuna eta baliagarritasuna aztertu, baina dagoeneko argitaratuta dagoen artikulu batean oinarritua dago galdetegia, Arabako euskal pilota elkarteak, (2019-2020) tik aterata haien zuzen

### **Lanaren aplikazio praktikoak**

Ikerketa hau interesgarria izan daiteke GH-ko irakasleentzat, izan ere, ikerketa honetan burututako UD-ak ikasleengan eragin positiboa izan duela ikusita, irakasleek UD erabili dezakete beraien saioetarako. Gaur egun, garrantzi sozial handia ematen zaio GH-ri kirol-ohitura iraunkorrek lortzeko zeregin erabakigarria baitu, baita ikasleen ongizatearekin eta beste portaera osasungarri batzuekin ere. Ikerketa honek metodologia, helburu, planteamendu eta jarduera egokien bitartez, ikasleen motibazioa bultzatzea posible dela erakusten digu. Pilotako monitoreei ere lan hau oso baliagarria izango zaielakoan nago, hainbat jarduera eta ariketa hartu dezaketelako bertatik eta, nahiz eta askok pentsatu haien lanak ez duela askorako balio, galdetegiaren bitartez nabaritu da ikasleek ezagutza asko barmatzen dituztela jarduten duten kirolaren inguruan, kasu honetan esku pilotaren inguruan. Azkenik, lortutako emaitzak adierazi digute adin hauetan unitate didaktiko bat baliagarria dela ikasleen interesa eta ezagutza pizteko, unitate didaktikoak haiengan izan duen eragin positiboa argi utziz.

## **8. ONDORIOAK**

Esku pilotan zentratutako UD honek, ikasleen interesa, motibazioa eta inplikazioa handitzea posible dela erakutsi digu, UD bat era egokian aurrera eramatearen garrantzia argi utziz. Horrez gain, kirol gehienetan bezala, generoaren munduan gaur egun ezberdintasun handiegia dagoela ikusi da, mutilen artean esku pilota gehiago ikusiz, praktikatu, gustatu, etab, eta aztertu beharko litzateke ezberdintasun honetan gizarteak ezarritako aurreiritzi eta estereotipoak eraginak dituen ikasleen gogoetan edo haien benetako gogo pertsonalak diren.

Gradu amaierako lanari bukaera emateko, aipatu oso gustura sentitu naizela lana aurrera eramanez eta gogoko dudan kirol baten inguruan datu estatistikoak ateraz, izan ere etorkizunean hainbat irakasle eta euskal pilotan gazteak entrenatzen dituzten pertsonari erabilgarria izango zaie.

## 9. BIBLIOGRAFIA:

- Albisu, J.J (2007). *El remonte del siglo XXI*. Pamplona: Canal Cero.
- Alcalde, G. S. (2016). *Euskaldunak komunikabideen aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa* (Doctoral dissertation, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea).
- Amorrortu, E. (2012). *Talde estrategikoen euskararekiko jarrerak: gazte euskaldunak, erdaldunak eta euskaldun berriak*. Marcos interpretativos de la realidad social contemporánea/Egungo gizarte errealitatea interpretatzeko bideak, 9, 43.
- Arraztoa, T (2004). *Guante-Laxoa. La modalidad más antigua de la pelota vasca*. Pamplona: Aralar.
- Beharzan K.E.; Arratibel, F (1998). *Historia de la pelota en Villabona*. Donostia: Fundación Kutxa.
- Castro-Sánchez, M., Zurita-Ortega, F., Martínez-Martínez, A., Chacón-Cuberos, R., & Espejo-Garcés, T. (2016). *Motivational climate of adolescents and their relationship to gender, physical activity, sport, federated sport and physical activity family*. RICYDE, 12(45), 262-277. doi: 10.5232/ricyde2016.04504.
- Csikszentmihalyi, M (2004). *Flow. Kairos*.
- Cuberos, R. C., Ortega, F. Z., Marmol, E. G., & Sánchez, M. C. (2020). *Autoconcepto multidimensional según práctica deportiva en estudiantes universitarios de Educación Física de Andalucía*. Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación, (37), 174-180.
- Egibar Mitxelena, M. (2006). *Euskal Kirol Eskola: Euskal Jolas, joko eta kirol eskola hezitzailea*. Ikastaria, 15, 133-142.
- Etxebeste, J (2004). "Educación Física". In: *Currículo Vasco: Itinerario Cultural*. Donostia: Ikastolen Elkartea, Gobierno Vasco- Departamento de educación, universidades e investigación, pp. 63-74.
- Eusko Jaurlaritzza (2017). *Ikastetxearen hezkuntza-proiektua lantzako gida*. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Gasteiz: Hezkuntza Saila.

- Francés, F. J., Alaminos, A., Penalva, C. eta Santacreu, Ó. A. (2014). *El proceso de medición de la realidad social: La investigación a través de encuestas*.
- Hernandez Ballester, E. (2014). *Gorputz Hezkuntzaren garrantzia Haur Hezkuntzan garraioekin bateratutako unitate didaktikoaren bidez*.
- John, W., & Creswell, P. C. (2000). *Designing and conducting mixed methods research*. SAG.
- Johnson, B. eta Onwuegbuzie, A. (2004). Mixed methods research: A research paradigm whose time has come. *Educational Researcher*, 33(7), 14-26.
- Lagardera, F. eta Lavega, P (2003). *Introducción a la praxiología motriz*, 123 or.
- López, P. eta Fachelli, S. (2015). *Metodología de la investigación social cuantitativa (1.ed.)*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona.
- Maher, J. M., Markey, J. C., & Ebert-May D. (2013). The Other Half of the Story: Effect Size Analysis in Quantitative Research. *CBE—Life Sciences Education*, (12), 345-351.
- Martínez de Salazar, A (2001): “El País de los vascos en los libros de viajes”, en Víctor M. AMADO eta Santiago DE PABLO (eds.): *Los vascos y Europa*, Fundación Sancho el Sabio, Vitoria-Gasteiz, 182 orr.
- Moreno-Díaz, M. I., Tapia-Serrano, M. Á., Vaquero-Solís, M., & Sánchez-Miguel, P. A. (2021). El deporte colectivo en educación física. Unidad didáctica del COLPBOL. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, (432), 101-109.
- Moreno Murcia, J. A., Hellín Gómez, P., & Hellín Rodríguez, M. G. (2006). *Pensamiento del alumno sobre la educación física según la edad*. Apunts. Educació física i esports.
- Parlebas, P (2001). *Juegos, deportes y sociedad. Léxico de praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo.
- Pío Baroja (1940): *Guía del País Vasco Español- Francés*, Caro Raggio, Madrid.

- Rodríguez, J. (2006). Judo para ciegos como contenido novedoso en las clases de Educación Física. Unidad Didáctica. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte/International Journal of Medicine and Science of Physical Activity and Sport*, 6(22), 75-86.
- Robinson, K. (2015). Escuelas creativas: la revolución que está transformando la educación. (1. ed). Barcelona: Penguin Random House.
- Urdangarin Liebaert, C., Etxebeste Otegi, J., Ereño, C., López de Sosoaga, A., Usabiaga Arruabarrena, O., Amenabar Perurena, B., ... & Ortega, G. (2005). *Euskal jokoa eta jolasa: transmitiendo una herencia vasca a partir del juego*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia= Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

## 10. ERANSKINAK.

### (1. Eranskina): UD aurretik eta ondoren egindako galdetegia

IZENA: \_\_\_\_\_ MAILA: \_\_\_\_\_

#### 1. Pilotan jokatzeari gogoko duzu?

- a. Bai, asko
- b. Bai, dezente
- c. Ez, gutxi
- d. Ezer ez

#### 2. Pilotan jokatzen al duzu eskolatik kanpo?

- a. Bai, asko
- b. Bai, dezente
- c. Ez, gutxi
- d. Ezer ez

#### 3. Pilota ikusten duzu telebistan?

- a. Bai, asko
- b. Bai, dezente
- c. Ez, gutxi
- d. Ezer ez

#### 4. Ezagutzen duzu euskal pilotaririk?

- a. Bai, asko
- b. Bai, dezente
- c. Ez.

Baiezkoa baldin bada, Zeintzuk? \_\_\_\_\_

**5. Ezagutzen al dituzu euskal pilotan dauden espezialitateak?**

a. Bai

b. Ez

Zeintzuk? \_\_\_\_\_

**6. Praktikatzen al dituzu espezialitate horiek?**

a. Bai

b. Ez

Zeintzuk? \_\_\_\_\_

**(2. Eranskina): Unitate didaktikoaren ebaluazio orria**

IZENA: \_\_\_\_\_ MAILA: \_\_\_\_\_

**1. “Euskal pilota” unitate didaktikoa gustukoa izan duzu?**

- a. Bai, asko
- b. Bai, dezente
- c. Ez, gutxi
- d. Ez, ezer ez

**2. Pilotalekuan egindako jolasak egokiak izan dira?**

- a. Bai, oso egokiak
- b. Bai, egokiak
- c. Aspergarriak
- d. Gogorregiak
- e. Zailegiak
- f. Beste zerbait \_\_\_\_\_

**3. Irakaslearen lana (azalpenak, laguntza, motibazioa...) egokia izan da?**

- a. Bai, oso egokia
- b. Bai, egokia



- c. Ez oso ona
- d. Txarra
- e. Zertan hobetu dezake bere lana:

---

---

**4. Zer aldatu edo hobetuko zenuke “Euskal pilota” unitatean:**

---

---

**5. Zer ikasi duzu unitate didaktiko honekin:**

---

---

**6. Esku pilotarekiko interesa areagotu da? Zergatik?**

---

---

### 3.Eranskina: Unitate didaktikoa egin aurretik 1. galderaren erantzunak

#### 8. taula: Maila eta 1. galderaren emaitzak uztartzen dituen kontingentzi taula

		1.1. GALDERA				
		Bai, asko	Bai, dezente	Ez, ezerez	Ez, gutxi	Gutzikoa
Maila 2	Maiztasuna	20	23	11	25	79
	Esperotako maiztasuna	19,9	22,2	10,2	26,7	79,0
	Mail abarneko %-a	25,3%	29,1%	13,9%	31,6%	100,0%
	1.galdera barneko %-a	57,1%	59,0%	61,1%	53,2%	56,8%
	Gutzizko %-a	14,4%	16,5%	7,9%	18,0%	56,8%
4	Maiztasuna	15	16	7	22	60
	Esperotako maiztasuna	15,1	16,8	7,8	20,3	60,0
	Maila barneko %-a	25,0%	26,7%	11,7%	36,7%	100,0%
	1. galdera barneko %-a	42,9%	41,0%	38,9%	46,8%	43,2%
	Gutzizko %-a	10,8%	11,5%	5,0%	15,8%	43,2%
Gutzikoa	Maiztasuna	35	39	18	47	139
	Esperotako maiztasuna	35,0	39,0	18,0	47,0	139,0
	Maila barneko %-a	25,2%	28,1%	12,9%	33,8%	100,0%
	1.galdera barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
	Gutzizko %-a	25,2%	28,1%	12,9%	33,8%	100,0%

#### Khi karratuaren proba

	Valor	gl	Significación asintótica (bilateral)
Chi-cuadrado de Pearson	,463 <sup>a</sup>	3	,927
Razón de verosimilitud	,463	3	,927
N de casos válidos	139		

a. 0 casillas (0,0%) han esperado un recuento menor que 5. El recuento mínimo esperado es 7,77.

### 4.Eranskina: Unitate didaktiko egin aurretik 2. galderaren erantzunak

#### 9. taula: Maila eta 2. galderaren emaitzak uztartzen dituen kontingentzi taula

		1.2. GALDERA				
		Bai, asko	Bai, dezente	Ez, Ezer ez	Ez, gutxi	Gutzikoa
Maila 2	Maiztasuna	9	18	38	14	79
	Esperotako maiztasuna	10,2	17,6	34,1	17,1	79,0
	Maila barneko %-a	11,4%	22,8%	48,1%	17,7%	100,0%
	1.2. galdera barneko %-a	50,0%	58,1%	63,3%	46,7%	56,8%
	Gutzizko %-a	6,5%	12,9%	27,3%	10,1%	56,8%
4	Maiztasuna	9	13	22	16	60
	Esperotako maiztasuna	7,8	13,4	25,9	12,9	60,0
	Maila barneko %-a	15,0%	21,7%	36,7%	26,7%	100,0%
	1.2. galdera barneko %-a	50,0%	41,9%	36,7%	53,3%	43,2%
	Gutzizko %-a	6,5%	9,4%	15,8%	11,5%	43,2%
Gutzikoa	Maiztasuna	18	31	60	30	139
	Esperotako maiztasuna	18,0	31,0	60,0	30,0	139,0
	Maila barneko %-a	12,9%	22,3%	43,2%	21,6%	100,0%
	1.2. galdera barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
	Gutzizko %-a	12,9%	22,3%	43,2%	21,6%	100,0%

### Khi karratuaren proba

	Valor	gl	Significación asintótica (bilateral)
Chi-cuadrado de Pearson	2,659 <sup>a</sup>	3	,447
Razón de verosimilitud	2,657	3	,448
N de casos válidos	139		

a. 0 casillas (0,0%) han esperado un recuento menor que 5. El recuento mínimo esperado es 7,77.

## 5. Eranskina: Unitate didaktiko egin aurretik 3. galderaren erantzunak

### 10. taula: Maila eta 3. galderaren emaitzak uztartzen dituen kontingentzi taula

		1.3. GALDERA				
		Bai, asko	Bai, dezente	Ez, gutxi	Ez, ezerez	Gutzikoa
Maila 2	Maiztasuna	12	31	31	5	79
	Esperotako maiztasuna	12,5	28,4	31,3	6,8	79,0
	Maila barneko %-a	15,2%	39,2%	39,2%	6,3%	100,0%
	1.3. galdera barneko %-a	54,5%	62,0%	56,4%	41,7%	56,8%
	Gutzizko %-a	8,6%	22,3%	22,3%	3,6%	56,8%
4	Maiztasuna	10	19	24	7	60
	Esperotako maiztasuna	9,5	21,6	23,7	5,2	60,0
	Maila barneko %-a	16,7%	31,7%	40,0%	11,7%	100,0%
	1.3. galdera barneko %-a	45,5%	38,0%	43,6%	58,3%	43,2%
	Gutzizko %-a	7,2%	13,7%	17,3%	5,0%	43,2%
Gutzikoa	Maiztasuna	22	50	12	55	12
	Esperotako maiztasuna	22,0	50,0	12,0	55,0	12,0
	Maila barneko %-a	15,8%	36,0%	8,6%	39,6%	8,6%
	1.3. galdera barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
	Gutzizko %-a	15,8%	36,0%	8,6%	39,6%	8,6%

### Khi karratuaren proba

	Valor	gl	Significación asintótica (bilateral)
Chi-cuadrado de Pearson	1,721 <sup>a</sup>	3	,632
Razón de verosimilitud	1,713	3	,634
N de casos válidos	139		

a. 0 casillas (0,0%) han esperado un recuento menor que 5. El recuento mínimo esperado es 5,18.

## 6. Eranskina: Unitate didaktiko egin aurretik 5. galderaren erantzunak

### 11. taula: Maila eta 5. galderaren emaitzak uztartzen dituen kontingentzi taula

		1.5. GALDERA			
		0	1	2	Gutzizkoa
Maila 2	Maiztasuna	5	53	21	79
	Esperotako maiztasuna	7,4	51,2	20,5	79,0
	Maila barneko %-a	6,3%	67,1%	26,6%	100,0%
	1.4. galdera barneko %-a	38,5%	58,9%	58,3%	56,8%
	Gutzizko %-a	3,6%	38,1%	15,1%	56,8%
4	Maiztasuna	8	37	15	60
	Esperotako maiztasuna	5,6	38,8	15,5	60,0
	Maila barneko %-a	13,3%	61,7%	25,0%	100,0%
	1.4. galdera barneko %-a	61,5%	41,1%	41,7%	43,2%
	Gutzizko %-a	5,8%	26,6%	10,8%	43,2%
Gutzizkoa	Maiztasuna	13	90	36	139
	Esperotako maiztasuna	13,0	90,0	36,0	139,0
	Maila barneko %-a	9,4%	64,7%	25,9%	100,0%
	1.4. galdera barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
	Gutzizko %-a	9,4%	64,7%	25,9%	100,0%

### Khi karratuaren proba

	Valor	gl	Significación asintótica (bilateral)
Chi-cuadrado de Pearson	1,977 <sup>a</sup>	2	,372
Razón de verosimilitud	1,958	2	,376
Asociación lineal por lineal	,768	1	,381
N de casos válidos	139		

a. 0 casillas (0,0%) han esperado un recuento menor que 5. El recuento mínimo esperado es 5,61.

## 7. Eranskina: Unitate didaktiko egin aurretik 6. galderaren erantzunak

### 12. taula: Maila eta 6. galderaren emaitzak uztartzen dituen kontingentzi taula

		1.6. GALDERA			
		0	1	2	Gutzizkoa
Maila 2	Maiztasuna	48	24	7	79
	Esperotako maiztasuna	44,3	27,8	6,8	79,0
	Maila barneko %-a	60,8%	30,4%	8,9%	100,0%
	1.6. galdera barneko %-a	61,5%	49,0%	58,3%	56,8%
	Gutzizko %-a	34,5%	17,3%	5,0%	56,8%
4	Maiztasuna	30	25	5	60
	Esperotako maiztasuna	33,7	21,2	5,2	60,0
	Maila barneko %-a	50,0%	41,7%	8,3%	100,0%
	1.6. galdera barneko %-a	38,5%	51,0%	41,7%	43,2%
	Gutzizko %-a	21,6%	18,0%	3,6%	43,2%
Gutzizkoa	Maiztasuna	78	49	12	139
	Esperotako maiztasuna	78,0	49,0	12,0	139,0
	Maila barneko %-a	56,1%	35,3%	8,6%	100,0%
	1.6. galdera barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
	Gutzizko %-a	56,1%	35,3%	8,6%	100,0%

### Khi karratuaren proba

	Valor	gl	Significación asintótica (bilateral)
Chi-cuadrado de Pearson	1,947 <sup>a</sup>	2	,378
Razón de verosimilitud	1,942	2	,379
Asociación lineal por lineal	,840	1	,359
N de casos válidos	139		

a. 0 casillas (0,0%) han esperado un recuento menor que 5. El recuento mínimo esperado es 5,18.

### 8. Eranskina: Unitate didaktikoaren aurretik 1. galderaren erantzunak sexuaren arabera

#### 13. Taula: Sexua eta UD aurretik 1. galderako (pilota jokatzeari gogoko) emaitzak uztartzen dituen taula gurutzatua

		1.1. GALDERA					
		Ez, ezer	Ez, gutxi	Bai, dezente	Bai, asko	Guztizkoa	
SEXUA	MUTILA	Maiztasuna	6	20	19	23	68
		Esperotako maiztasuna	8,8	23,0	19,1	17,1	68,0
		Sexu bereko %-a	8,8%	29,4%	27,9%	33,8%	100,0%
		1.1Galderaren barneko %-a	33,3%	42,6%	48,7%	65,7%	48,9%
		Guztizko %-a	4,3%	14,4%	13,7%	16,5%	48,9%
NESKA		Maiztasuna	12	27	20	12	71
		Esperotako maiztasuna	9,2	24,0	19,9	17,9	71,0
		Sexu bereko %-a	16,9%	38,0%	28,2%	16,9%	100,0%
		1.1Galderaren barneko %-a	66,7%	57,4%	51,3%	34,3%	51,1%
		Guztizko %-a	8,6%	19,4%	14,4%	8,6%	51,1%
Total		Maiztasuna	18	47	39	35	139
		Esperotako maiztasuna	18,0	47,0	39,0	35,0	139,0
		Sexu bereko %-a	12,9%	33,8%	28,1%	25,2%	100,0%
		1.1Galderaren barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%
		Guztizko %-a	12,9%	33,8%	28,1%	25,2%	100,0%

### Khi karratuaren proba

	Valor	gl	Significación asintótica (bilateral)
Chi-cuadrado de Pearson	6,464 <sup>a</sup>	3	,091
Razón de verosimilitud	6,563	3	,087
N de casos válidos	139		

a. 0 casillas (0,0%) han esperado un recuento menor que 5. El recuento mínimo esperado es 8,81.

**9. Eranskina:** Unitate didaktikoaren aurretik 3. galderaren erantzunak sexuaren arabera

**13. Taula:** Sexua eta UD aurretik 3. galderako (pilota ikusi telebistan) emaitzak uztartzen dituen taula gurutzatua

		1.3. GALDERA					
		Ez, ezer	Ez, gutxi	Bai, dezente	Bai, asko	Guztizkoa	
SEXUA	MUTILA	Maiztasuna	6	20	30	12	68
		Esperotako maiztasuna	5,9	26,9	24,5	10,8	68,0
		Sexu bereko %-a	8,8%	29,4%	44,1%	17,6%	100,0%
		1.3 Galderaren barneko %-a	50,0%	36,4%	60,0%	54,5%	48,9%
		Guztizko %-a	4,3%	14,4%	21,6%	8,6%	48,9%
	NESKA	Maiztasuna	6	35	20	10	71
		Esperotako maiztasuna	6,1	28,1	25,5	11,2	71,0
		Sexu bereko %-a	8,5%	49,3%	28,2%	14,1%	100,0%
		1.3 Galderaren barneko %-a	50,0%	63,6%	40,0%	45,5%	51,1%
		Guztizko %-a	4,3%	25,2%	14,4%	7,2%	51,1%
Total	Maiztasuna	12	55	50	22	139	
	Esperotako maiztasuna	12,0	55,0	50,0	22,0	139,0	
	Sexu bereko %-a	8,6%	39,6%	36,0%	15,8%	100,0%	
	1.3 Galderaren barneko %-a	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	
	Guztizko %-a	8,6%	39,6%	36,0%	15,8%	100,0%	

**Khi karratuaren proba**

	Valor	gl	Significación asintótica (bilateral)
Chi-cuadrado de Pearson	6,211 <sup>a</sup>	3	,102
Razón de verosimilitud	6,274	3	,099
N de casos válidos	139		

a. 0 casillas (0,0%) han esperado un recuento menor que 5. El recuento mínimo esperado es 5,87.

